

Augustin Anabitarte

POLI

Mutil umezurtz baten ibilaldiak

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Augustin Anabitarteren idaz lanak*, Juan San
Martinen edizioa. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa, 1986

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00194.htm>

ASI-ITZA

Ona, irakurlea, non dezun Poli mutiko «pijua». Bautista Bazterretxe ez zan onen mallakoa, ezta alderatzeko ere. Ura «bazter-etxe», au «bazter-zulo». Barka, Poli, izengoitia, abizen bearrez bazaude ere.

Polik emen esan baño gaiztakeri geiago egin zituan. Ala ere, naikoak. Bakarrik munduan, gurasoak aldegiñak, ikasbide onik ikusi ez, bar-kagarria zaigu Poli.

Ain bakarrik ere, eskerrak bere buruaren jabe zala. Ain jabe ere, nai zuan aldera jotzen zuan. Jo ta utzi, ostera jotzeko. «Igual» ara, onera bearrez. Zer gogoak eman, biziimodu berria gure mutikoak. Aguro aspertu. Bide berria artu ta lenagokoa iñori ezere esan gabe utzi, nai zuan artan bertan. Beñere ez sari-zai.

Gaztetandik ernetu bear izan zuan bere burua. Bearrak asko erakusten du. Goizero zerjan arkitzen bazan ere, ez iñoren mende. Bakarrik munduan asi zanean, —berak noiztik jakin ez— gazterik asko, bere aalez billatu bear izan

zuan bizimodua. Ta atxitura ere errez laga, beti esku-utsik ibilliarren. Jainkoak bearra berditzen duala baleki bezela ibiltzen zan. Txoriaren irudi berbera zan.

Aita-orde ona izan lezakean: «Akulamendi» ontziko sukaldaria. Batzuek «ardo berritxua» edo ardiek atzetik baba bezela, erritalari purrukatua zan.tarteka, «pillosopua». Ikusi dezu, irakurlea, gazta gordetzeko bae burniarizkoa? Badabilkitzu eltxoa gora ta beera barrenen sartzeko txuloa ezin somaturik. Alako batean dzast! sartuta ba-doa gaztara. Ikusi dezu eltxoa sartzen? Ez dezu ikusiko ba-ateratzen. Egiñalean ibilliko zaizu biraka alperrik. Ezin geiagoan emango dio egari. Eta bertan ezin aterarik geldituko zaizu.

Alaxe izaten ziran sukaldariaren gogapenak. Eltxoaren gisa buruan sartu, baño bein sartuz geroz «akabo» aien ateratzea. Aren zalapartak gora-beera, oso biotz-bera zan. Biotz-ikutua izaten zuanean, maitalea zan; gizona eme, ollarra ollo. Benetan, Poli ain aldakorra izan ez balitz, sukaldaria leukake aita-orde on-ona.

Ez aita, ez aita-orde, baño bai aita... giarreba. Bera bizi zan «aparteko» mundu artan, tokiari muxin eta jendeari iges egiten zien. Baño neskatx polit batek, denboraz... denboraz... biotza beregana lotu zion. Orra Gaztelu zaarreko lozulotik nola aldatu zan, ibillian-ibilliz, Elizondoko etxe eztsura.

Ene Jainko maitea, munduak zenbat joan-etorri eta zenbat gora-beera izaten dituan! Polik, lurrean nork begiratu ez izanarren, ba-zeukan zeruan bere Aingeru Zaindari ona. Gauzak nola izaten diran: batera ta bestera ibilli, ta atzenean ezmugitu-tokira erori; erori sagar eldua. Donostian bizitzen asi ta Donostira ezkondata etorri. Juanbeltz gizajoa!

Mutil onen bizitza, noski, atsegiña da jakiten. Kristau guztiak ez gera berdiñak: batzuk onak, besteak gaiztoak; batzuk alper, besteak langille; batzuk apal, besteak nabari; batzuk koldarrak, besteak ausarditsuak... Nolakoa ote zan gure Poli? Irakur ezazu asi-itx oni darraikiona.

EGILLEAK

POLI

Nagiak kendu ta errenka atera zan eguzkita-
ra. Begiak igortzi, bi aldeetara so-egin, eskuak
sakelean sartu ta ganoraz abiatu zan mendian
beera Gaztelu zaarraren ondotik. Bizkarra belar-
tximaz josia zeukan. Bide-baztarretan arbolak
ugari. Arunzko muturrera iritxi zanean ortziko
argiari ezkur-alea zitzaion. Orduan amabost urte
zituan Polik.

Poli umezurtza zan, oso pizkorra mutilla. Ba-
zirudian —ezin ditekena— noizbait ogei urte izan
ta, geitu bearrean, gutxitu egin zitzaizkela
urteak. Batzueri arpegiko azala kendu ta bost
urtez aurreragokoa agertuko balitzaie, Poliri bost
urtez geroagokoa ageri. Biurria mutilla; zer gala-
zi uratxe egin bear. Norbaitek, mendian beera,
«agur, mutil» esaten ba-zion, ezta erantzun ere.
Bera ez zan mutilla. Bere adiñeko mutillak, guz-
tiak gutxiesten zituan eta utsagatik zartakoa
eman. Bein mutil batek neska bateri taba ostu.
Neska txikia negarrez. Polik mutillari zartako bat
eman eta taba neskari biurtzea agindu. Aal iza-

nez geroz, noiznai jaten zuan, ez zuan otordue-
tako garai jatorrik; lo, edozein baztar ezkutuan.
Iñork begiak itxita ikustea nai ez. Lana, nai zua-
nean. Batzuetan, kaieko arrikatz puska aundiak
zankoz bultzatuaz uretara bota, gauez; ta urren-
go goizean larru-bizirik murgildu, arrikatza atera
ta saldu egiten zuan. Bein suge bat arrapatu
zuan, txapelan sartu, muturra lotu ta uretara
jaurtikita bertan itoazi. Urrena beste mutil bateri
txapela kendu.

Goiz artan Poli itsas-bazterreko arrietara jetxi
zan. Ura bare-bare zegoan. Poli aitz baten
gañean jarri zan urari begira. Poli txikia ta bere
errañua bi, esan zitekean. Eguzkiak ondo argi-
tzen zuala-ta, beeraño ikusten ondoa muskar-
margoan; barrenago ta illunago. Urpeko arriek
ba-ziruditen palaxtaka uraren ibillerarekin. Ura-
ren zola oso polita, itsas-belarra apaingarri. Txal-
buruak añako arraitxoak arri-azpitik atera ta egi-
ñaletan biurtzen ziran. Beste buru aundi beltzak,
bildurtiagoak, ba-ziruditen zearka begira ere ba-
zekitela, karramarro bat ozta-ozta urpetik leko-
rera asi zan. Atzeko anakak atera zituanean ber-

tan geldi eguzkitan arrian gora. Karramarroa busti-berria ta diz-diz egiten.

Arri aiek Polirenak ziran. An lapa ugari izaten zan. Txoko artan ba-ziran zuloak, exeri ta etzato-kiak. Poli itxuan ere ibilliko zan arritik arrira etxean bezela, baldin noizbait etxean ibillia zala esatekoa ba-da. Gorde-lekuak ere bai. Iñor arri aietara joaten ba-zan, antxe aldean egongo zitzaion aldegin arte. Arrantzaleren bat arrantzaz asten bazan, arrantza luzea izanarren, ez zitzaion joango arek kanabelak-eta jaso arte. Ta onuntzean bere ondoan igarotzen bazan, begiratu zorrotza egingo zion gizona bazan ere. Ostutako kare ta arriekin egindako etxearen jabeari bezin berea zitzaion toki ura.

Polik laban zaar kamotza sakeletik atera ta lapak biltzen asi zan. Labanari ortzak txarrak zitzaizkion; jabeari bereak, ez. Toki eroso batean exeri ta lapak ustualatan asi zan. Utsak, uretara. Batekin karramarroa izutu ta itzulipurdika sartu zan uretan. Bestetan aidean bota ta labanarekin jota tokitara bidaltzen zituan. Bat ur sakonean txirri-pilika nola ondoratzen zan begiratzeko, aldean atzaparrak mugitzen ikusi.

Mulko illun bat zan. Buru aundia ta atzaparrak, besterik ez. Olagarroa zan.

Polik labana utzi ta ondoko arrira joan zan. Oin bateko oñetakoak kendu, galtza iztarreraño ekarri ta zanko zuria zintzillik utzi zuan uretan sartuta. Olagarro beltzak zanko zuria ikusi. Olagarroa asi zan zankoagana. Gero-ta argiago ikusten olagarroa. Itsusia zan. Iguingarria. Buru-begi aundi ta ezurrik gabeko anka biguñak. Ez dakigu arrastaka ala igari ote zetorren. Olagarroa mutillari bertaratu zitzaion. Mutillak zankoa pixkanaka atzera ta olagarroa aurrera. Zankoa ur-azaleraño ekarri zuanean gelditu zan. Olagarroa aurrerago. Mutilla geldik. Olagarroa erro bat luzatzen asi zan. Mutilla geldik. Otza nabaritu zuan iztarrean. Erro nazkagarri bat itsasita zeukan zankoan. Erroak nonbait tira egin ta Poli irristatu. Eskerrak ipurdiak beerakoan arria topatu zuala, bestela uretan zan. Poli bildurtu zan. Labana beste arrian zegoan. Ezin araño joan. Baño Polik bazekian labana izan ez-izan berdina zuala, labanak ezin dezake errorik moztu. Polik izugarrizko oñazea nabaritzen zankoan. Negar

egiteko gogoia etorri zitzaion. Poli bakar-bakarrak zegoan alde artan, olagarro ikaragarria ez beste.

Une batean, amabost urteko mutillak, sakela arakatu ta poxpoloak atera, oso larrituta. Oñazekarraxia atera zuan. Gero bi poxpolo batean piztu ta erroari alderatu zizkion. Erre-soñu garratza nabaritu. Larru zurian odol-orban ugariak azaldu. Olagarroak erroa askatu.

Poli Donostian jaio bearrean, txinatarren artean jaio izan balitz, itsaslapurra. Oraindik pataria (kontrabadista) izan zitekean: Lizarraga apaiza ta Santa Cruz jenerala bezin zuzenki.

JUANBELTZ

Txapela aurreko aldera, kopetilluna, sudurra ta kokotza ausarki. Ez zan argala, lodia gutxiago: giar utsa zan. Begi txikiak zuri-zuri ikusten zitzaizkan barrengo begi-ondo beltz artan. Iñoiz irudiz ikusi izan degun Judas mutur-beltzaren begiratu zorrotzeko gizona. Ta Judas ere arrantzalea izana. Baño ezin izan aren gaiztoa. Bein urizaiari labana atera zion. Ta kaiean iñork beste orrenbeste iñoiz egin ez bazuan, e gia da ere ez ziola sartu ta lanerako labana zuala.

Juanbeltzek ez zuan beñere parrik egiten. Itz gutxi ta geienez txarrak. Juanbeltzekin eez zan txantxetan ibiltzerik. Juanbeltzek ez zuan iñorekin itzegiten nai ez zualako; besteak ez zuten Juanbeltzekin itzegiten bildur ziralako. Ezta aldean irri-santsorik atera, Juanbeltzek beretzat ar zezakean, ta maizegi jartzen zitzaion buruan berarentzat ari ez ote ziran. Juanbeltzek gorrotoa zeukan kaieko guztientzat.

Kaiean bizi zan, baño ez zan iñorekin bizi.

Zakarra gizona. Juanbeltz, erorian daukazu gerrikoa. Ta zuri zer? esango zizun. Ta alako grin gaiztoko gizona kanpotarrak txalupan egurasten ibiltzen zitzaizun. Kaieko jendearekin ezin aditu ta kanpotar eguraszaleak gozatu, alajaña. Bein arengana zana, noski, ez zegoan bere etxe-bidea jakiteko. Ta askotan urrutiragoko asmotan etorri zana Santa Klarara joan-etorriarekin naikotu egiten zala egingo nuke. Nor ausartu alako gizonarekin itsasoratzen! Lanaren saria eman bear ziotenean, txuxen ordaintzen zioten, noski. Bestela, bi lagunentzat amarna kuarto asko zala? Ea nai al zuten diru orrengatik etxeraño bizkarraren gañean eramatea.

Moalla-arriaren gañean jartzen zitzaizun kanpotarren zai. Txapel-muturraren azpitik urrutira begiratzen zuten aren begi txikiek. Bakarrik egoten zan, xigarroa ezpañetan. Noizpeinka xigarroari tira ta zuk itzalita egotea usteagatik, alako surik gabeko paper beltzari kea ateratzen zion. Ezta itzegiteko ere abotik kendu. Tankera onetan, Juanbeltz itsaslpaur euskalduna esango zenuten. Ta ez dakigu lapurretara nola ez zion eman.

Egun aietan ur-azpiko lanak ari ziran egiten kaiean. Urpekari edo buzoa igota, guztiek aldegiten zuten lergaiak lertu bear zuaneko. Alako batean, danbada batez, ura irakiten bezela jartzzen zan eta arri batzuk azpitik azaleraño ezik uretatik kanpora ateratzen ziran. Orduan Juanbeltz laisterka asten zan eskalleretan. Arrai batzuk tripa zuria gora azaltzen ziran, illik; besteak, zoratuta, irabioka joaten ziran eskalleretara beren gorputzak uztera. Ta antxen topatzen zituzten Juanbeltzen beatz arrapariak. Arrai gaxoak ematen zioten lan gozagarria! Ez zanbeste iñorentzako tokirik an. Antxen egon bear zuten goien jeisten ausartu gabe. Arraitxo gaxoak zoratuta ikustean, arek artzen zuan atsegiña.

Baño Juanbeltz ona al zan ala gaiztoa? Kaieko jende guztia aren bildur zan, egiteko txar aundirik egin ez bazuan ere. Biotz oneko gizona agian? Juanbeltz Onegintza-gurutzea irabazita zegoan uretatik bost mutil koskor, bost txandetan, bizirik ateratzeagatik.

Juanbeltzeri kaie tarrek abegi ona egingo balio teke, agian ez litzake orren zakarra izango, zioten batzuek. I ta ni orren bakarrik utziko ba-

ginduzkete, ez al lizaiguke bekaña illunduko? Oakio ba, besteak. Baño egia esan, Juanbeltz utzi al zuten ala Juanbeltzek besteak utzi?

Artean, bost mutil koskor uretatik atera. Alde batetatik gizon gaiztoaren itxura zeukan, iduri txarreko gizona. Ta izugarri izateagatik, ez al zitekean biotz-bera izan, edo-ta, ez al lirake zenbait gauza biotz aren beragarri?

Auzi au erabaki dezagun mutil koskorren aldetik. Mutillek Juanbeltz kaiean ikusten zute-nean, alkarri salbatzalea zetorrela esanaz, txi-mistaka abiatzen ziran begitaratu orduko.

Juanbeltzek bi duro artzen zituan mutil bat uretatik atera-bakoitzean.

TXALUPA MADARIKATUA

Txalupa zuria izana zan, baño oraindik osoro itsusitu gabea. Jabeak illezko oial gorria ipiñi zion atzean ta bi aldeetara, kanpotarrak exeritzeko tokian. Kai guztian iñortxok ez zuan alako apain-garririk bere txalupan. Egia da bein aren antze-ko oiala aiuntamentuko balkoitik ezkutatu zala.

Txalupa liraña zan ta ondo txukundua. Kaie-ko txaluparik onena zan. Onen politasunari esker-rrak ez ziran ainbeste ikaratzen jabearekin. Jabeak izutzen ba-zituan, txalupak etorriazi. Polik gorrotoa zeukakion txalupa areri. Oialez estalitako txakur polita emakume itsusi baten besoetan iruditzen zitzaion.

Nola izan zitekean Juanbeltzek aren txalupa polita izatea? Polik ezin zuan iñola ere biak alkar-tu. Alaba liraiñ polit baten aita zala esatea beze-la. Juanbeltzeri ez zegokion alako txalupa polita-rik! Zergatik kanpotarreri bere atsegiña balu bezela txalupa ura erakutsi? Kaieko guztiek ba-zekiten jabearen biotz beltza.

Juanbeltz besteen janzkiekin jantzita zebillen. Juanbeltz txalupa arekin ez zan Juanbeltz ta Polik ezin eraman beste itxuran azaltzea. Jakin zezate-la nor nor zan.

Ta txalupa, zertarako Juanbeltzekin alkar-adi-tuta ibilli? Orra nondik zetorren Poliren txalupa-ganako gorrotoa. Polik edozein kristauari izan zezaiokean bezelako gorrotoa zeukakion txalupari. Txakurra izatekotan akabatuko zuan. Txalupa madarikatua! Aiek ez ziran alkarrekiko jabe ta jabedunak! Juanbeltz ijitoa zan ta txalupa etxe on batetik arrapatutako alabatxoa. Orain Juanbeltz zan madarikatua.

Poli begira zegokion txalupari moallatik. Txalupa neska lirain baten antzeko igidura zerabilkian ezker-eskubi izena busti ez busti. Juanbeltz moalla-arriaren gañean exerita zegoan. Polir judua iruditu zitzaion Juanbeltz orduan, alabari iñoren galbidean ibiltzen uzten diotenetakoa.

Polik amorrus begiratzen zion txalupari. Ai, bere eskuan baleuka! Zenbat-eta txalupa ariña-go ibilli uretan, asarrea areago. Juanbeltzek begiratzen ez zionean, besterik eziñean, txistua botatzen zion goitik beera gorritzakako oialari.

Txalupa iseka, alegia. Ta ondotxo zikinduko zion oial gorria, baldin Juanbeltz egon luzearekin kezkatzen asi ez balitz.

Polik igarri zion, baño ezta mugitu ere. Alako batean jaikita ba-dator Juanbeltz Poligana. Gizonak ikusi zezakean egiteko txar ura, baño mutilla bertan bildurrik gabe. Polik ederki eraman gizonaren aurrez-aurreko begiratzea.

Poli uretara botatzen, ausartuko al zan? Ez bi duro irabazteko asmotan, noski. Irabazi, irabazi, nork irabazi zitzakean ondoen? Juanbeltzeri ez zitzaion orrelakorik bururatu, amorratutako arpegiarekin begiratzeagatik.

Zer bear dek emen? ta legorrera bultzatu zion.

Polik atzera egin zuan erori gabe. Berdin begiratzen zion Juanbeltzeri:.

Aldegintzak emendik.

Ta nekez bazan ere, abiatu zan mutilla asko larritu gabe. Poli nekez, Juanbeltz geldik areri begira. Gizona exeri moalla-arrian; mutilla, aldegiña.

Zer egin erabaki zuen. Artu bear dezute, biok-ala-biok. Txalupari ez-egitekoren bat egiten

ba-diot, ez du atsekabe txarra artuko! Gau artan bertan omen zeukan egitekoa. A zein bururapen ederra.

Gaua etorri zan, ez Polik nai bezin aguro. Egun artan berandu zebillen Poli kaiean. Bestetan illundu orduko asten zan Gaztelumendian gora. An, Gaztelu zaarreko txoko batean egiten zuan lo, beste iñor askorik mendi guztian ez bazan ere. Zulo artan gordetzen zituzten lergaleak soldaru prantzesen danbagañentzat, azkeneko jabeak; orain, berriz, Poli beste jaberik an ez zan. Lotarako belar legor pilla zuan oea, udara ta negu.

An zebillen Poli, kaiean, berandu, abagunearen zai bere egitekoa egiteko.

Izugarrizko amorrua eragiten zion txalupak. Ta guk uste gaizkiñek norbait il bear dutenean, amorruz beteta egoten dirala il-aurrean, naiz-eta lapurreta egin nai.

Azkenik Poli eskalleretan beera asi zan. Zerbait jetxia zala burua atera zuan lurraren parean ta bi aldeetara so-eginda txaluparatu zan. Bai bat-batean asi. Juanbeltzen txalupa zuria zala-ta beste edozein baño obeto ikusten. Illuntasunean

batetik bestera saltoka azkarrik zebillen. Orain-
txe lepotik, edo sokatik elduta moalla-aldera
ekarri zuan. Moallan lanak egiten ari ziralda, bi
burni-puska zeuden parean arrian sartuta. Polik
soka-muturra burni aietako bateri lotu zion. Txa-
lupak ez zuan txintik ateratzen, noski; ba-ziru-
dian bildurtuta zegoala. Polik, nekez bazan ere,
moallatik ateratzen ziran bi burnien azpian jarri
zuan txalupa, doi-doi. Txalupa loturik eta burni-
besoak gañean gelditu zan, beraz. Orduan bur-
niaren gañean oña jarri ta soka baten bidez kaie-
ko argitara igo zan. Pixka bat etzanik, berealako-
an egin zion alde bestea kai-aurreari ta illun-
pean sartu zan.

Gaztelurako bideak amalau aldiz bira eman-
bearra zeukan. Polirentzat bederatzi, berak ain-
beste joan-etorritz egindako bide txigorretik.
Pixka bat gelditu zan, ez zan osoro lasaitu, nai
zuana eginarren, amorru guztia ez zitzaiola ustu,
alegia.

Gaua ederra zan. Arbol luze aien buruak goi
zeuden. Ostoeak alkarrekin sortzen zuten soñu
«epela» ixiltasunaren otsa esan zitekean. Polik
goia arrapatu zuanean izarrak erruz ikusten. Egi-

teko ura egin ez balu, Poi begira egongo zitzaien zuloan sartu-aurrean.

Urrengo goizean egun berriak argitzen zituan Gazteluaren orma zaarrak. Gaztelu-gaña aspaldian lurra jota zegoan. Ta eguzkitan leioetatik zeruko urdin puskek ikusten ziran, mukizuek gal-tza-zuloetatik ipurdia ageri duten bezela.

Len ere ikusi genuen Poli belar-tximaz josia Gaztelumendian beera. Gaur goiztxo zebillelarik zuzen abiatu zan kaiera ots eta zaratak asi baño len. Orain lasaitu zan, an zegoan berak nai zuana, amorrua ustu zitzaion ta joan zan.

Itsasoko ura aunditu zan gaua bitartean. Txalupa burnien azpian artu ta gero-ta aunditzen zijoan bidez sendoago eusten ziola, azkenik ura gañezka asi ta berealakoan beteta txalupa gaxoa ur-azpian zan. Lotuta zegoalarik, egazia mokotik zintzilik ematen zuan, edo-ta, zakur illa, iges egin eziñik ilda ere kateari lotuta zegoana.

ISKANBILLA

Kaiean izugarrizko iskanbilla zuten. Juanbeltzek, okerreko ustean, Bonbollo jo ta tiñako baten barruan exeriazi zion. Gizajoa, ateratzeko larri ba-zegoan, ez zioten askorik laguntzen Juanbeltzengandik zetozkion muturrekoak. Ta arras zanpatuko zuan tartetu ez balitz beste itsastar jendea. Baño alako batean bere burua libratuta, nos asten da Bonbollo Juanbeltzeri ordañak ematen.

Oraintxe berriz borrokari lotu zaizkio ta biak ere artu-eman pizkorra darabilkite. Bonbollo gizajoa, txaluparen ondoratzearekin zer ikusirik ez zeukana, egiñalean ari da lengo bildurrak aztuta. Bonbollo zan len ere Juanbeltzekin asarretuta aurrea eman zion kaietar bakarra. Ta orretxengatik uste bera zala txalupari egiteko txarra egin ziona. Amorruguztiarekin ekiten zion Juanbeltzek.

Orra ba, tartekoeri aldegin-bearra etorri zitzaizela, bi gizonak zartakoka bizi-bizirik. Biek arpegia odoltzen asia zeukaten. Juanbeltzek ortz

zuriak agiri zeuzkan, Bonbollo menderatzeko bidean zijoan.

Non etortzen zaion Bonbolloren emaztea, emakume lodia, atzetik. Areri berriz bultzatu ta uratik urruti ari ez zirala, orra Bonbolloren andrea, zanaren gizona zala, putzura erori. Ordea, bultzatzerakoan atzera biurtu zala-ta, zartako ederra eman zion Bonbollok Juanbeltzeri arpegian.

Orduan, bai, orduan! Goian gizonak borrokan, beean emakumea uretan igari egin eziñik. Kaieko emakumeen karraxi ikaragarria! Errizaia laisterka etorri zan. Batzuek ondoko txalupa artu ta Bonbolloren andrearen arrantzan asi ziran. Besteak errizaiari lagundurik borrokalarien artean pakea egin nai zuten. Andrea, naiko ur gazia edanda ba-zan ere, azkenik ito gabe igo zuten txalupara. Juanbeltz, ordea, ezin guztien artean baretu. Errizaiari asi zitzaion joka. Eskumakilla altxa zuan. Nekez ba-zan ere, besteak asko zirala-ta, menderatu zuten. An eraman zuten errizaia ta beste iru laguneren artean giltzaperera. Andrea bi besotik elduta eskalleretan gora zekartela, orduantxe gogoratu Bonbollori. Ta senarrari otzak ondo kendu ba-zizkioten, emaz-

teak ez zuan ezagun arpegiari gorritasun aundirik. Ura itxura! Aiek gonak.

Juanbeltz gizajoa, Bonbolok txarkeria egiña uste bai zuan, giltzapean sartu zuten, bera ez. Donostiko kaiak atsedeen-aldi polit artu zuan. Zenbait kaietar, aren bildur ziranak, ederki lasaitu ziran ta sekulan Juanbeltz aterako ez bazuten ere, naiago. Juanbeltzen itzala kenduarekin baztarrak alaitu ez ote ziran. Ala ere, txalupa ur-azalean jarri zioten barrengo urak ondo ustuta ta bear bezelako tokian lotu.

Ba-zirudian jabea giltzaperatu izateak min aundia eman ziola txalupari.

Iñork ez zuan txalupa ikutu, ezta bein ere, Juanbeltz atek itxita zegoan bitartean. An egon zitzaion zai iru egunean. Jabea zanaren erretxiña zala ere, ez zuan iñorekin joan nai izan. Senargaia kanpora joan-bearra izan eta beste iñorekin ibilli nai ez duan andregai zitaion.

Poliri eskerrak, bada orduantxe iru eguneko jabetza izan bazezakean ere, ezta txalupa ikutu. Errezegia zitaion Juanbeltz kaiean ez zala. Beste edozein mukizuk ori bera egin zezakean, non-eta gertatutakoaren bildurrez, beste edoze-

ñek jostatzeko gogoia kentzen ez ba-zion. Poliri ez zitzaion oraindik joan lengo amorrua. Beste egiteko txarren bat egingo zion, baño ez Juanbeltz giltzapean egon bitartean; bieri adarra jo, alegia. Txalupak ernegazi egiten ba-zion ere, bere jabe ta guzti ekingo zion, ez bakarrik. Ez uste zenbait kaietarrek bezela bildurra zeukakio-nik. Bera ez zan koldarra.

Kaieko gizonak ez zioten antzik ematen ere gaiztakeriaren egillea nor ote zan. Ba-zekiten Bonbollo ez ala, Juanbeltzek ba-zala bezin segu-ru. Naiago zuten azalduko ba-zan, danak istillu gorrian jarri gabe. Bonbollorengana bezela beste edozeñengana berdin jo zezakean. Besteen egi-tekoekin, zer zeuden ikusteko?

Gaiztoa nor zan? Kaieko mutileri galde. Aiek ez ziran illunduz geroztik kanpoan egoten eta are gutxiago jakin bear. Baño usaia, usaia, danak susmo batean egon, uste berberekoak izaki. Poli?

Noski! Artean, nor ausartu itzik ateratzen, larrua kenduko ba-zieten ere. Ez Juanbeltzenganako bildurrak. Ez al zan Poli bildurgarriagoa? Bein

arrapatuz geroz, baño nork arrapatu zitzakean ondoen? Ezta tutik ere, ez zuten aipatuko.

Juanbeltz gizajoak, batere itzik egin gabe, ia jateko gogorik ez, igaro zituan esi-peko iru egunak. Len beraganako uste txarra zutela sinistuta ba-zegoan, orain guztiek bere lepotik parra egi-ten zutela jarri buruan. Ezin ba baretu, iñolaz ere, kaieko guztientzako gorrotoa. Ematu bea-rreran, txartu zitzaion barrua. Juanbeltz gizajoa bakarrik munduan. Gaiztoa ba-zan ere, baldin alakorik, a zer laguntza bere urkoengandik! Zearo gaiztotuko zan.

Atera zan, utzi zuten; bizitza larriegia zitzaion. Kartzela batetik atera, bestean sartu. Ala ere, ezin utzi kaieko kaiola. Bertan bizi ezin ba-zan ere, beste non bizi? Gorrotoa, nai-ta-naiezko bizilaguna al zitzaion? Txalupa ur-aza-lean naiko garbi ikusi zuanean, ostera amorratu zan. Ez nai bere txalupa iñork ikutzea, ezta sutatik ateratzeko ere; baldin alakotan, erre zedilla. Nornaik ibilli al zezakean bere-berea zuan txalu-pa? Ez al zan berbera ikutzea baño geiago edo ainbeste baintzat? Zergatik bere aurrean ori egi-ten ausartu ez ta giltzapean zegoala aritu?

«ERRIA TXIKOTA!»

Poli bigarren txarkeria egiteko gai zegoan, zer egin asmatuta zeukan. Oraingoan ez zan txalupa bakarrik uretan sartuko. Oraingoan itsasbeerako lana izango zan. Oraingoan, noski, min artu min eman, gaizkitu gaitz egin, bear eta kendu. Juanbeltzen atsekabeengatik ez zion deus ajolik. Poliri lengo arenganako grin txarra zebilkion orain ere. Izan ere, ostera gorriz jantzi-ta ikusi txalupa. Bai-ba, illezko oial ura jaso egiten zuan txalupa utzi-bakoitzean ta berriro azaldu zan lengo joritasunez. Berriz ere judu-alaba iruditu zitzaion Poliri.

Arratsalde artan amorro bizian zegoan Poli. Oi zuan armiarma-tokira joan zan, an Jaranako auzko muturreko txoko batean. Maiz bota oi zizkan egoak kendutako euliak armiarma buru-aundiari. Ta nik uste Polik ematen zion janarekin zegoala aundituta. Baño arratsalde artan, zegoan amorratuta zegoala, ateraldi batean zapaldu egin zuan mamorro iguingarria.

Polik bi gauza bear eta ala gertatu: Juanbel-
tzek urrengo eguna arrantza-eguna izatea ta
arratsean itsas-beera izatea. Erremientak esku-
ratu zituan. Oraingo lana ez zan lengoa bezelako
lan arin ta errexia izango, baña ondorenak ere ez
ziran izango nolanaikoak, nai bezela ateratzen
ba-zitzaion beintzat.

Zazpitan zan itsas-aundia. Bederatzietara-
ko, noski, txalupa burni-barraren azpian jartzeko
ainbeste beeratuko zan. Uraxe garai ederra zan,
ez zan oso berandu etzatokira joateko ta ordu
artan ezta iñor ibilliko kaieko baztarretan.

Ez, ordea, nolanai etortzen arratseko bedera-
tziak. Poli, batez ere, erriko kaleetan ibilli zan,
kaiekoek gutxiena ikusi zezaten. Kaleetan jen-
dea urritzen asi zan, ordea, ta Polik bakarregi
ikusten bere burua. Batera jo ta bestera jo, ezin
ba iñon susmo txarreko begiraturik gabe ibilli.
Orrek eta egin bear zuanak larrituta zeukaten.
Joan zan Gaztelumendi-beko zulora. Mamelena
lantegitik arrapatutako tresnak antxen zeuden.
Ta zai, bertan.

Azkenik atera zan. Aalik-eta ixillena uretara
jetxi ta, arinka, Poli bai zan mutil bizkorra, gure

txaluparen gañean jarri zan, zankoaren azpian etsaiaren lepoa artu balu bezela. Argiek txirrist egiten zuten uretan eta, urak mugitzen zitualata, alako murmurra egiten zuten txalupak alkarrekin jotzean. Arrauna uretara erorita, argiak dantzan.

Polik, urkamendira bezela, lengo tokira eraman zuan txalupa. Jarri zuan burni-barraen azpian. Muturreko sokarekin, lenbizi bira bat emanek, burni bateri lotu zion estu-estuan. Illunpeko lan artan ixil-ixilik ari zan. Ez al zitzaion bururatuko Juanbeltzeri, lengoak ikusita, txalupari gaez ikustaldi bat egitea? Izkutu artan, zegoan bakarrik zegoala, arrapatzen ba-zuan! Poli pixka bat bildurtu ez ote zan. Ta santsorik nabari ote adi-adi gelditu zan Poli. Ain ixilik ere, euri-tantoak, asiberriak, banakakoak, garbi nabari, obe, are gutxiago etorriko zan Juanbeltz.

Ta euriari sendo erasota, ondoko txalupa aundiari bilduta zegoan aize-oial zaarra kenduta, aterpeko lana izan zuan Polik oiala bi burnieri lotuta. Astiroko lana, noski, itsasoa ondotxo beerratu arte ez bai-zuan osoroko lana. Ala ere, tos-

tak kendu ta lasaiki aztertuaz, zuloa non egin erabaki zuan. Asi zan ba erdi-aldean.

Euria gogotik ari zuan. Bizkar-gañeko oialean atabal-otsa polita. Bein baño geiagotan etorri zitzaion Poliri txistua jotzeko gogoa; baño Juan-beltz etorri-bildurrak ixilerazten zion. Uretan ere zipristiñak ugari. Ustegabeen Poli alde batera irauli zan. Bai-ba, txalupa muturretik lotua zegoanez, itsasoa beeratuta, txalupa zintzilik asi zan ta Poli ta txalupa iraulka asi.

Iana bukatu-mugan zegoan, ordea. Barrikote kortxoarentzat añako zuloa zijoan. Kanpotik antzeman eta ez omen zana rtaz geroz zulotik ura sartuko. Txalupa naikoa altxata zegoala, alegia. Tresna zorrotz batekin azpiko alderañoکو zulo txikia egin zion. Ezta ur-tantorik ere. Orduan lanari gogor ekin eta amen beteko osoro zuloa idekita zegoan.

Kortxoa seboaz igortzia sartu zuan, doi-doi; ez estuegi, berez askatzeko eran; ez lasaiegi, bereala joan ez zedin. Artan arkituko zuan ba lanaren saria, antxen oker ala zuzen, arekin bai ala ez, galdu ala irabazi, uts ala asma.

Azkeneko ikutzeak eginda, tostak gañean jarri ta oial zarra kendu egin zuan. Urrena egitekorik arduratsuena egitera jarr4i zan: soka-muturraren korapilloa askatu ta poliki-poliki txalupa uraren gañean uztea. Ez, ordea, bat-batean, kortxoa atera ta ura sartzeko. Burniaren gañean zutik jarri zan ta, soka lenbizi bira eman bai zeukan, korapilloa askatu ta soka irristatuz, Polik beti apur bat gora tiraka, plaxt gelditu zan. Kortxoa ezta mugitu ere. Ordurarte, beintzat, Poli pozik. Txalupa lengo tokira eraman eta lotu, aize-oiala bere zuloan sartu, ari ez bai zun euririk, ta resnak berekin artuta, naiko berandu, abiatu zan. Mamelenako ate-aurrean utzi zituan erremientak. Ez omen zan lapurra. Juanbeltz ezere egitea ez zala txarkeria. Ta tresnak atzera biurtuta bere burua zintzo ikusi. Ai, kortxoak Juanbeltzek txalupa artu arte iraungo balu.

Urrengo goizean, len txalupa itota ikusi nai bezela, tente ikustea nai. Ta ala egoki. Orduan kortxoa gogorregi sartutako kezka asi zitzaion. Ta onetan ari zala, kai-aurrean, goizeko eguzki epelean, ba-dakus Polik Juanbeltz datorrela. Mamelenako lantegia ideki gabea zegoan orain-

dik. Antxen zeuden, utzi bezela, Polik gauean lagatako tresnak. Iñor askorik ez zebillen.

Beste aldean, itsasontzi aundi bat itsasorako gertutzen ari ziran.

Poli oso poztu zan Juanbeltz ikustean, poz eta bildur naste. Aretxek zeukan ezin-egona gertatu bear zuanarekin. Iraungo al zuan kortxoak itsasbarren erdira arte? Ez ote zan gogorregi egongo? Ta Juanbeltz zetorrela ikusi bezela, antzematen zion uretara joanda nola ibilliko ote zan.

Baño, onetan, non ikusten du Juanbeltz makurtu ta Mamelena-aurreko tresnak jaso ta, eramaten. Aretxeri sartu zitzaion amorrua! Berak utzitakoak Juanbeltzek eraman. Bereak izan balitu ez zitzaion Juanbeltz geiago asarretuko. Ta Juanbeltz tresnak eskuan aidean zijoala ikarragarritzko begiratu egin zion txikiak gizonari. Baita gizonak mutillari. Baño Polik geiago. Orduantxe ez zegoan egiña damutan.

Moalla-koxkan jarri ta begira gelditu zitzaion Juanbeltz arrantzarako gertu bitartean. Sartu zituan tresnak, arri aundi bat ere bai, soka batekin lotuta putzura bota oi da arrantza bitartean txalupa joan ez dedin. Bera ere sartu zan.Orduan

Poli korrika asi zan kaiari aldez beste egiten, kanpoko muturrean jarri ta zer gertaren zai, alegia. Pixka bat bildurtu zan ainbeste gauza txalupan sartu ta ondoratu ez zanean.

Ba-zetorren Juanbeltz arraunean arrantzarako. Poliren tokitik ikusita ura berdea zegoan. Parean jarri ziranean biek alkar ikusi zuten: batek beetik, besteak goitik. Polik batere bildurtu gabe begiratzen zion, iñoiz geiago etorri bear ez balu bezela.

Zijoala Prantzira nai ba-zuan arrantzan, beretzat kalte! Ta artan zeudela, arraunlaria urrutiratzen asia, txalupa berriz nagitzen asia, non ikusten duan Juanbeltzek ura erruz zetorrela txaluparen barrenean. Ta lenbizikoz zuloa billatzea bururatu bai zitzaion, etorria ain aundia zala-ta, betarik ez eta itxi-eziñean, aalik-eta legor-aldera azkarrena arraunean egitea otu zitzaion. Baño txalupa uraren bidez gero ta aztunago, ezin ba aguro ibilli. Ta txalupa beera bezela ura gora zetorkion Juanbeltzeri. Azkenean, barrengo ta kanpoko urak bat egin zuten, arraunak uraren gañean gelditu ta Juanbeltz, etsita, Poliri besoa altxata, igari asi zan. Areri jarritako gorroto ikaragarria oztuko al

zitzaion! Poli aal guztian begira zegokion gozatuaz. Ta nekez, biraoka, zettorrela, bere burua baño mutillak errexago salbatzen zituala esateko gogoia etorri zitzaion.

Juanbeltzek arrizko eskallarak arrapatu zituanean Poli aldegiña zan. Igo zan, igarilari gajoa, blei-blei egiñik, jantziak ura txirrioka zeriola, sakela bat kanpoan. Ta urruti xamarrera Poli oarturik asi zaio ara aldera. Pixka bateko an zan. Ta Poli ordurarte korrikarik egin gabe ibillia, asi zan bere aldiko, batez ere Juanbeltzeri barrenen gelditu zitzaion sakeletik labana ateratzen ikusi zuanean.

Ta an zijoazen biak korrika Juanbeltz atzetik labana eskuan. Jendea begiak zabalik gelditzen zan. Urizaia ezta mugitu ere. Juanbeltzek arrapatzen ba-zuan bi puska egingo zuan. Arrikatz pilla aundi bateri biraka asi zitzaizkion batak besteari segika. Jaranko emakumeak, oartuta, guztiak batean karraxika asi ziran.

Jendea asi zan biltzen. Poli bizkorra ba-zan Juanbeltz ez zan askoz txarragoa, edo amorruek egingo zion bestela.

Arrikatz-pilla utzi ta ateetara abiatu zan Poli. Baita Juanbeltz ere, ta ez urruti. Ta orra, Polik bere burua oso larri ikusita, ateetan zijoan itsasontzi aundira, len ikusitakoa, ikaragarritzko salto aundia egin zuan. Poli ertzean erori ez-erori gelditu zan; Juanbeltz, berriz, moallako ertzean berdin, tarte orain naikoa zabalduta. Poli atetxo batean burua sartuta korrika ezkutatu zan ontzi-barrenean. Juanbeltz, labana eskuan, aren irabio ta biraoak.

Ontzi ederra ganoraz abian. Atze-aldetik ura arrotuta, apar zuria gañezka. Makinaren burrun-dara. Ontzi sabel aundia. Gizonak gañean korrika. Erria txikota! Zabalera atera da. Eskubi-alde-ra bira eman. Itsaso aundiari begira dagokio. Kea. Txistua. Atzeko aldea jetxi ta aurrekoa altxata ba-dijoa. Izena ederki agiri du: Akulamendi.

BIZI-BIDE BERRIA

I, Txo, asi ai onoko patata abek laban zar orrekin zuritzen. Emen lana eginda bizi gaituk. Nik aña lan egiteako urtiak egin biarko'ituk mundu ontan. Zerta etorri aiz, jatera? Emen lana egin biar dik, lana! Ez da naikua alperkeriiyan ta gaiztakeriyan ta lapurretan aritzia. Juate'al itzan eskola? Ezta batere. Artian ikasiyak ez duiñor gaizkitzen. Ai, nik ire aukera izan ba-niken! Baño laneako jaiua nunbait eta ez gegozkik ortatik gutxi-egiñak. Ago, ikasi biarko dek balantzaka gutxiyago egiten etxia pixkat mugitzen dalako. Nik aña urte itxasuan egiten ba'ituk ikasiko dek zutik egoten. Gazteek zarrak ezagutzen dituzte; zarreek gazteak ez. Arraultzak nola jate'ituk ik, moskol ta guzti? Ba'akik, lan egin eta bizi, eta jardun ongi! Lana eginda ere, bizitzia kosta. Baño, motel, patatak ondatuko'ituk.

Aiek ari ziraneko sukaldea ez zan aundia, bi lagun alkarren atzetik pasatzeko ainbeste; aren aunditasunezko itsasontziek ez oi dute zabala-goia izaten.

Su-ondoko eskubi-aldera, ikaztokia; atzean, ontziak apaletan. Bi aldeetara, atea zabalik, itsasoari begira. Itsasontzi ura karga ematen dutenekoan; baita ere bost lagunentzako tokia ba-zuan, ontziko jendeaz gañera, or erritik errira dabilzanentzat.

Sukaldaria gizon zartzen-asia zan, sukaldari ona ta berritsu xamarra. Sukaldari ona zalako barkatzen zioten aren berritsukeria ta, batez ere, buru-gañean zalako txano, txapel, ginbail zuri ura ibiltzeko griña. Alako pastelero-txapela ez oi dute itsasontzi aundietan baizik ibiltzen, baño Akulamendiko sukaldariak ez zeukan bere sukalde-jakintza iñorekin trukatzeko. Ta berak ala uste: berak zekianez gañera Akulamendi ez zala askoen moduzko ontzi kaxkarra. Orain an ari zan, zortzi-aldiko bizarrarekin, txapel zuria izana buruan okerka jarrita, bost beatzen ikatz-aztarna beltza ederki agiri zuala.

Orri Poli aize zabaleko txoria bere buruz kaio-lan sartuta. Kristaba izan bearrean, egiazko txoria izan ba-zan, lenengoz goiak eta beak miatuko zituan, iñongo aterabiderik ote zan. Baño Poli

ezagueraduna izan eta jakin antxen egon-bearra; ontziaren inguru guztian ur aundia, noski.

Ta egia esan, ez zegoan ontzian sartua damututa. Lana eginbearrak atsegiña ekarriko al zion? Poli ez zan ezere egin gabe ondo daudenetakoa. Poli beti zerbait egiteko griñak ibiltzen zuan; geienez gaizto-aldera jotzen, ordea.

Sukaldeko lana ez zuan txarra, zer-jana len baño ohea, baldin baite; ezta ere goseak ibilliko, gosea ez zuan beñere adiskide ona izan.

Soka aietan gora ibili aal ba-zitekean! I, Txo, iyo ai goiko muturrera, noiz esango zioten. Alako lana zitzaion gogozkoa. Bizi-bide berria, beraz.

Sukaldari ura parragarria zitzaion. Nolanaike mutilla zala uste. Poliri bost ajola arengatik. Erritan zenbat eta geiago egin, parragarriagoa iduri. Ura kaikua! Ez zezatela angoek uste Txo nolanai ibilliko zutela. Danetara ere, sukaldariak kezka aundirik ematen ez. Ala obe.

Aldizka begi-illun egoten zan Poli gizajoa. Mundu ura txikiegia zitzaion. Berak ez jakiñarren erri-miñaz zegoan. Donostia maite, nonbait. Kaleetako jendea, kaia, Gaztelu zaarreko lo-zulo maitea! Oraindik ere begien aurrean zeukan

azkeneko ikustea. Urrutizijoala gogoratuta gora atera zan erria ikustera. Erria, ordea, agiri ez. Atzean egoten zan Gaztelumendiak aurrea artu. Zein mendi ziran aiek? Itsas-aldetik ez zuten lengo antz aundirik. Danak atzera makurtuak ematen zuten. Eten gabeko makina-burrundarak urrutirago zijoazela adierazten zion.

Poli ez zan aundia, ezta zabala ere; baño osasun ederrekoa, bizi-modu artarako ederki gaitua. Ontziko oea ez zan oso leguna, baño Polik edozein txokotan lo egin zezakean. Ontziko mutilla jaikitzen zan aurrena, bearrez goizeko ordubitan; baño gure ontzian goizeko iru t'erdia baño lenago ez zeukan jaikitzerik. Orduan kapea gertutzen zuan bi opizialentzat. Opizial bat labak laurden gutxiagotan jeikitzen zan beste opizialarekin labetan txanda egiteko. Ordu laurdeneko tarte orretan biek alkarrekin gosaltzen zuten Polik egin eta zerbitzariak ekarritako kapeaz.

Ostera oeratu ta sei t'ereditarako jeiki. Bederatzi t'erditan gosaria ontziko guztieri, zer janarekin. Eguarditik ordubitako tartean lo-kuluxka ederra egin zezakean Polik. Lau t'erditan izaten

zan bazkari jatorra ta geroztik zortzitako tia ta besterik ez. Tia Polik egin bear ta zortzi t'erditarako oera. Bidaztiak pasajeruek) sei t'erditan apaltzen zuten.

Txo, iriki itzak kontserba-kaja oiek. Urrena jartzak bakallua beratzen onenbesteko puskak eginda. Emen etziok denbora galtzerik i zakurzuloetan ibiltze'itzanian bezela. Egiñalak eginda ere naiko lana ba-ziok. Etorri-berriya aizelarik etzaut lan aunditara biartzen, baño saiatu biarko dek. Nik ire urteetarako edozein gizonak aña lan egiten niken. Lanak baño alperkeriyak geiago ondatzen dik gizona. Munduan jaiota dagoan guztiyak jakin biar likek ori. Jartzak ardua pronto. Ordia munduan burutik zuzen etziok sobra. Ta begirok arduari ur-tantorik sekulan bota neri aitzakiya eman ez dizadatekan. Ba'akik Txo gaju ori, janian jan eta lanian lan; baño nik uste'iat janerako obia agola i lanerako baño. A zer laguntza! Artian txotxa baño, aurra obe.

SUKALDARIAREN SAGARRAK

Poli bizibide berrira ia jarrita zegoan. Iñoren esanak egiten pixka bat ikasi zuan. Etxeko alkartasunera doi-doi asi. Sukaldariari lapurretan egiten, ozta-ozta. Polik maite zuan bizibide ura beti arriskoan bizi izanagatik.

Ur illunak ez zion len bezelako bildurrik ematen; odei beltzak ez zuten len ainbeste ikaratzen; aizearen txistuak ez zion lengo larririk ekartzen. Egia da ikusian-ikusiaz oitutzen zijoala, egonean-egonaz artara jartzen ari zala. Mariñelaren ogibide garratza.

Azkeneko ekaitzarekin gaizkitxo ibilli zan gure mutilla. Bi eguneko, etengabeko, gau ta eguneko balantza ikaragarri aiek arras ondatu zuten mutilla, oso dantzatu-bearra izan zuan. Makinaren gau guztiko zuzmurra. Uz-azpitik lekorera aterata ontzi guztia dar-dar jartzen zuan errotaren burundara. Gaztelu zaarreko lozulo maitea gogoratu zitzaion, noski.

Oeratu zuten, argizaia baño zuriago, ta bota zituan sartu baño geiago.

Diotenez, jaberik gabeko zaldiak pillan ibiltzen diran lurraldeetan, piztiren bat alderatzen bazaie, guztien buruak alkartu ta atzeko anakak erakusten dituztela ostikoka asten zaizkio.

Alatsu, nik uste, arriskoak alkartzen dituala itsasgizonak; lagundu ezak lagundu dizaitekan. Bestetik, Polik nai ta nai-ezko lagunak zituan aiek.

Kazuelak garbituz batera Poli erri berriak ikusten asi zitzaizun, ez asko oriandik. Eguzkia, euria ta aizea len baño askoz obeto ezagutzen zituan. Alako itsastar arpegi jatorra artzen asia zegoan. Urrutiko itsas-bazterretako goizeko lañoak.

Ontziaren gaña miatzen ari zala, leio batetik beera kaleko jendea ikusi zuan jan-gela batean jaten: andre bat seme-alabakin ta bi gizon. Ara ta onera zebillen zerbitzaria. Zer jaten zuten begira zegoala, mariñel batek bizkarrean ikutua egin zion:.

Kaxo motel, goazemak beera. Emen baño obeti egongo gaituk.

Lenengo izutuagatik asi zan arekin batean. Jetxi ziran mariñela ta biak, oeak alkarren gain-

ka, mariñelek lo egiten duteneko tokira. Exeri ziran aurrez-aurre beeko oietan. Mariñelak berrogei ta zortzi urte zituan.

Nola dek izena, Txo? asi zitzaion.

Poli.

Gure itsas-errietako ontzietan ontzi-mutil guztieri Txo deitzen zioguk. Ez adi, bada, kezkatu. Nik Nikasio diat izena, Armintza errikoa. Asieran Pinisterre deitzen nindutekan; baño denboraz izena laburtu ta orain Pirriste ez beste ez natxiotek ezagutzen. Eta pozik, motel.

Pirristek pipa piztuaz:

Nola konpontzen aiz sukaldariarekin?

Polik erantzun ez.

Ez akiok kasorik egin. Sukaldaria on utsa dek. Noski, berritsu galanta, sermolari bikaña ta zala-partazalea. Ez omen zion Akulamendiko sukaldaria baño ohea. Pozik artuko omen litekek Ameriketara joan oi ditukan ontzi aundi orietako batean. Gau batean, iñork uste gabe, asi ukan karraxika: qq, argi-etxea aurrez-aurre geneukakelakoan ta illargi-punta izaki! Atzenean parra egin bear dik orrek esaten dizkiken gauzakin; baño ba-dakik, i baño zarragoa dek eta adiñeko

gizonak errespetua beardik. Zenbat eta zarrago begirune geiago. Gaurko gazteek ez ikasi edo aztuta zeukatek jakinbear ori.

A! ta, ba-zeukat emen ogi puska tortillakin. Artzak, ik asko jan bear dek gizon indartsua egi-teko.

Gaur igandea ta ez diagu lanik. Adizak, joa-ten al aiz mezetara?

Ez, Polik.

Ba joan egin bear da. Emen ez diagu nai degunean joaterik; baño aal dan guztian joan bear da.

Nik lagunduko diat. Musika atsegin al dek?

Polik buruarekin baietz.

Ta mutillak jan bitartean Pirristek oe-azpitik pilarmonika atera ta asi zitzaion jotzen Ni naiz kapitan pillto.

Atsegin al dek, berriro galdetu zion.

Bai.

Musika bukatu ondoren ostera igo ziran biak, len alkar ikusitako tokira. Gauza batek zeukan arriturik Poli. Pirristek bereala antzeman zion.

Ikusten al dituk mendi zuri aiek? galdetu zion. Oriekdituk Arcachongo ondarmendiak.

Zuritasun ori ez dek elurra, ondarra baizik. Orain Burdeosera giatzik. Itsasoko naigabeen ordañez, mariñelek onelako ikusgarri asko ikusten diagu. Nik onuzkero munduaren erdia ikusi diat. Baño tristia dek Eguarriak etxetik kanpora pasatzea. Ba-al dek pamilirik?

Ez daukat iñor, erantzun zion Polik.

Gurasorik ez?

Iñor ez.

Ba, mutil ona izan bear da.

Pirriste zalaren ona zan gizona, ez zitzaion oargarri Poliri. Guztietan giena arritzen zuana lenen-opiziala zan, Mundakako gizaseme sendo bat. Bekain aundiak, sudurra berriz mallatuta. Bein suezitar mariñel batek egin zion botillakin jota, bost lagun biren kontra ari zirala.

Ordea, zentzua etorrira, bestea igeska asi zanean, eltzen dio laban txiki batekin atze-alde-tik eta arek atera omen zuan karraxi bizia! Labana, larrua zulatuta, errex sartzen omen da.

Onelako kontuak oso atsegin zituan Polik.

Beste batean, Malagan zirala, gabeen ontziratubearra izan zuan opizialak. Txalupan zijoa-zela, Akulamendi ia bertan, pesetaren tokian bi

peseta eskatu txalupariak. Txaluparia gaizto-
arroa zan. Ezetz eta baietz. Jartzen zaio txalupa-
ria ontzi-eskallera igotzen ez uzteko tankera.
Ezetz eta baietz. Jotzen du opizialak eta uretara
bota. Orrez gaiñera txalupari ostikoa eman eta
urrutiena bidali zuan. Urrengo goizean, ez omen
zan munduan opizialak bezela joko zuanik eta
txikierdi bat artzea eskeñi zion kaieko goiarro
nagusiak.

Onelako edestiak oso gozaten zuten donos-
tiar mutilla ta bizibide berriko txakurkeri guztiak
ontzat ematen zituan gizonkeri aien bidean bera
ere jartzen zalako. Itsastar jendearekin onela
gertatzen da, ontzian irabazi, legorrea eralgi.
Askatasunaz gañera edariak bizkortu. Ez al dio-
zute errepatu txakurrak etxe-barrunbean luzaro
egonda, kanpora ateratzen uzten ba-zaie, nolako
zaunkak ateratzen dituzten?

Ori zan Poliren gizona, itsasertzeko argi
biziak gabea diz-diz egiten zuten bitartean
ontzi-gañean ara-onera ibiltzen zan gizona.
Askotan bakarrizketan aritzen zan, Poli txokoan
arrituta. Pistola ere ba-zeukan. Alako argi egite-
ko tramankulua ere bai sakelean.

Baño nik esango dizutet egia. Gure artean ibiltzen zanean, nik neronek ezagutu ba-nuan, biotz-bera ta on-utsa zan. Ollo bat iltzeak naigabea emango zion.

Poli ez zan ain zulo txarrean erori, beraz. Ez zuan, oraindik, aspertzeko denborik izan. Ango lana ez zitzaion larriegia ta, sukaldeko nasteak maite zitularik, ba-zuan beste atsegingarri bat.

Gu au edesten ari geraneko sasoian sukaldariak sagarrak sukaldetik kanpora gordetzen zituan, lengo arrapariaz gañera oraingo berri onen saioak alerik gabe utzi ez zezaioten. Bere lo-gelako sofa batean eukitzen zituan.

Gabero-gabero, Polik sortutako kizki batekin banaka batzuk ostutzen zizkion. Sukaldaria kezkatzen asiagatik ez zion antzik ematen. Polik sartzen zuan makilla, eztena muturrean, leio txiki batetik eta, illun artan, sofaren alderdira zultzen zuan. Bestea lo bitartean, onela ostutzen zizkion ainbat sagar.

Baño egun batean, sukaldariak oea pintatuberria seukala, sofaren gañera etorri zan lo egitera, sagarren tartean. Non Polik, kizkiarekin, sendo zulatu sukaldaria. Onek atera zituan

karraxiak! Ilko naute ta laguntza-eskeko itzak. Baño bat-batean egiazko antza emanda asten da bere aldiko lapur madarikatua! ta ba-dijoakio atea idikita, ume arraio orren egitekua, egintzak on, arrapatzen ba-aut itoko aut, ni bezelako aita onik ire bizi guztiyan, a ze bekañekua, zintzo-izateak zer baliyo dun lapurren tartian.

Poli sartu zan sukaldean korrika, bai sukaldaria ere aren segika. Arrapatuko zuan bere esku zar arekin, baldin beste atetik ateratzerakoan Polik arrai-kaja aundi bat, azpikoa, artu ta erdiratu ez ba-zuan. Ai! Txo, gajo ori! ta kaja utzita alde egiñaz, bat-batean barkatu zizkan lapurreta guztiak.

A zer lasaitua etorri zitzaion! Sukaldari gajoa, igari ez zekiala, iru aldiz atera zan bizirik olari elduta ontzia ondabidea eta, zer gerta ere, arrai-kaja eder maite ura beti aldamenean eukitzen zuan kutuna baño kutunago.

BURDEOS-EN

Kantauri itsasoa utzi ta Royan ezkerretara ta Grave-muturra eskubitara, asi zan Akulamendi ontzia naiko zabaleroko uretan Burdeosko bidean, Soulac alde batera Pontaillak bestera.

Oso sarrera ederra da. Royango kaiean ontzi-pilla polita ikusten zan. Itsasoko konturik ez jaki-ñagatik Prantzian barrena zijoazela igarri-erreza zan: ontzietako bandera prantzesak pin-pin zera-bilzkian aizeak.

Bi aldetako baztarretan ondarra ugari, uretal-diak artzeko udaran jende asko etortzen dan tokiak dira aiek. Lurra berdiña da, arboletan ez gutxi. Akulamendi aurrera bezela, ezker-eskubiko errixka ta baso-etxeak aldatzen ziran.

Poli, eguzkia aurrean, esku-azpitik begira zegoan, beste eskua gerrian, lur berriak alegia. Goizeko aize gozoak legunki ikutzen zuan. Ontzia berriz, ur barean, gogoz irristatzen zan. Aren ubera ur-erretena) luzea.

Beste ontziak, oial-ontzi asko, ba-zebiltzan ara-onera, gero ta geiago. Taz ur-bidea zabala

dalarik, ontziek baztarrera egin bear izaten dute tarteka ugarte koxkor batzuk bidean jartzen zaizkatelako.

Orra, ba, iritxi ziran Dordoña ta Garona ibaiak bat egiten duteneko artara ta bira emanda Libourneko bidea utzi ta gure ontziak, eskubi-aldera jota, beste askoen tartean, zuzen artu zuan Burdeosko bidea.

Ura erri aundia! Zeuden tokitik etxe-pil aundia ikusten zan urrutira. Eguardi-aldea zan. Errigaña lañotuta zegoan. Ez zan garai txarra etxeetako keak ikusteko. Lañoakatik ezagutzeko tankeran agiri ziran Deun Mikeleko ta katedraleko erpiñak.

Gure ontziak aizea urratuaz txistu luzea jo zuan. Akulamendik ere ke zurizko motots eder askoa erakutsi. Gelditu zan poliki.

Aurrean izugarrizko zubi ederra. Andik aurre-ra joaterik ez zan. Poli bein eta berriz asi ta ezin zenbatu kontatu) zubiaren begiak. Batean ama-bost, urrena amazazpi. Jakin egin bear, bada. Asi ta utzi. Berriz ere amazazia. Ez bada segurua-go. Asi ta utzi. Asi ta amazazpi berriz ere. Amazazpi begiko zuba! Ori zuba.

Kaia ontzi ta gauzez bete-betea zegoan, ardo-barrika asko. Itsasontziak zakurrak bizkarreko azkurea dutenean bezela moallari pega-pega eginda zeuden.

Iñon diran soka, garabi ta biltokiak. Batez ere ardo-barrika asko, ardo-barririk. Donostiko kaia baño aundiagoa, noski.

Errian orduari guztiak kinkitikanka amabiak jotzen asi ziran, iñolazko motazko soñu nabariekin, aalik eta amabi tankateko jota banaka galtzen zijoazen arteraño: kanpandorreko ulu illuna, ikastetxeko soñu pozgarria, Erri-etxeko malluketaren dunbotsa, lantegietako eresi zolia, etxeko jantokiko dei ezaguna, dendariaren kitar zarra.

Eguardia zan. paper-saltzaleak odeietaraño igo-arazi zituzten beren oju ajolagabeak; tranbien tintinak eta txirriak ozkia ematen zuten; txanodun ta txanorik gabeko tarranten pa-pak iusa biotzean; tarranta pototzak kaleetatik goiko bizitzetaraño dar-dar jartzen zituzten lurrak eta etxeak. Batzuk ara, besteak onera; aiek lasai, abek azkar, edo patxarazko ibilleran ala zanko luzaka.

Arratsalde artan opizialak zapatak erostera eramán zuan Txo. Txotxo, esan zion sukaldariak, jarri itzak galtzetin txukunak jendiaren aurrian biar bezela agertu adin. Ta, ontzietan alkarren gauzak nastu xamar ibiltzen dituztelarik, arritu zitzaion opiziala aren galtzetin beltz ederrak nondik sortu ote zituan gure mutillak. Eraman zuan, bada, berarekin. Antxen zijoazen kaleetan barrena bizkaitar sendoa ta donostiar txikia, bai pozik ere mutilla.

Sartu ziran ba alako denda batean.

qq, opizialak.

qq? qq.

Opizialak lertu egin bear. Txo galtzetin utsik jarri zanean orpoan izugarrizko puska palta zuana pinturra beltzez berdindua zeukan. Ontzian ere ez zuten par txarra egin. Ik lotsik ez eta bestiak lotsatu biar, sukaldariak esan ziona.

Ta onela egin oi dute itsastarrek. Ontzian ez dute izaten dirua zertan eralgi gastatu). Ta itsas-erri batera iristen diranean orduan erosten dituzte erosteko asko. Gogotik edan ere bai. Ta lau egunean jo-ta-tira ibillita joan zitzaizkaten diruak! Berenak eta kapitanak utziak. Baño

andik aurrera ezta txanponik ere. Ordaintzekotan eskatutakoak aitu ziran eta ez geiago. A zer estualdia.

Ontziak arrikatza eraman zuan Burdeoera. Sabela ederki ustu zioten, baño gaña naikoa zikindu ere. An ari ziran Txo ta beste bat, alde banatik, baldea sokarekin lotua uretara bota ta urez beteta beetik gora ateratzen. Urrena beste bi ontzigizonek esandako tokian ustu ta eskoboi banakin, galtzak belaun-koskorretaraño, gain guztia zirritz-zarrat larraskatzen. Ur zikiña ibaira ixuri.

Arratsean, txanponik ez-eta, kapitanari ogei duro zor-eta, zerbait otu zitzaion opizialari. Zeudela ontzian berak esan arte. Zazpi-bat lagun izango ziran. Lostramo ere an zan. Ontzietako kontramaixueri deitzen diete «lostramo», baño gure onek berea balu bezela zuan izen ori. Los-tramok ba-zekian bigarren opizialak aña pilototzan ta egualdi-kontuan kapitanak eta beste edozeñek baño geiago.

Ontzia-ibilli lantean bear-bearrena. Alako balioko gizonagan, zer gerta ere, begirapen aundia izaten dute. Sukalde-nagusiak, gurean sukaldaria

zan orobat sukalde-nagusi, zer aundia izaten dute beste guztien gañetik, baita opizialen gañetik, jan-kontuan nolabait nai dutena egin zezatekelako. Ordea, kontramaixuari baita sukalde-nagusiak berak ajolaz begiratzen dio; larrua larru. Orra, beraz, Lostramo.

Atera zan, bada, opiziala gabeen bakar-bakarririk. Sartu zan erriko baztar illunenetan. Ibilli zan kale estu ta gaiztoetan. Mundakako semea kantoietakoa argien azpian pasa ta illunpean sartzen zan. Noizpeinka itxura gaiztoko bat-edo-bat atondoren bateanegon zegoan. Besteren bat aldean ibilli. Bar batetik gizon beltz aundi bat atera zan eta ba-zetorren opizialaren bidetik aurrez-aurre. Biak ausnarka. Beltzak gutxiagotu zuan ibil-neurria, bai bizkaitarrak ere arpegia emanaz. Oraintxe parean jarri dira, begira jartzzen zaio beltza. Bizkaitarrak orduan, eskua gerrian.

qq! Alde emendik, beltza, aguro, esan zion inglese.

Ta beltza bere bidetik eta opiziala aurrera, naiz-ta beltza deitzea atsegin dutena ez izan.

Arago ta zerbaiten otsa ta zarata nabaritu zuan. Joan zan argi zegoaneko artaraño. An ziran kanta ta musikak. Kanpoan qq zegoan jarria. Donostian alako bateri Kafe Zikin jarri zioten izena. Ta baztar batetik barren aldera begira jarri zan. Bi neska kitarra jotzen zeuden. Urrena diru-eske ibilli ziran.

Edan-ontziak garbitzen zegoan neska buru-oria kiñuka ari zan gazte batekin. Nagusiak beste muturretik erritan eman zion. Neskak berriz, iguinka, mingaña erakutsi nagusiari. Aulki batean lo gelditutako bateri txospertzeko amoniako-botilla sudurraren azpian jarri ziotelako, txospertu ezik asarretu zan etxekoekin. Mai batean emakume eder bat zegoan iru gizonekin bere senarrarentzat iñon diran zerrikeriak esaten. Ta aski degu.

Azaldu zan guztien aurrean eme zikin bat kantari. Opizialari ederki belarriratu zitzaon: qq, sedazko galtzerdiak, zan kanta. Aski degu ere.

Opizialak ontzira-bidea artu zuan. Andik laister guztiak bilduta zeuden: opiziala, Lostramo, bi su-egille, makinista, Pinisterre ta beste mariñel bat.

Abiatuziran lengo bidetik. Jarri zituzten galtza puts batzuk eta eskalaproiak, maukutsik. Poliki ibiltzeko, alegia, oñetako zar aiekin ots geiegi atera gabe. Baño bertara bidean zijoazela Kafe Zikinen eskalaproien otsa ixiltzeko añako zarata ta iskanbilla zan. Lengo musika oraingo naste ta karraxiak aldatu zan. Bildu ziran ate-ondoan.

Alako batean, rrast! sartzen da opiziala, aren atzetik Lostramo bere eskubira jarririk, urrena bestea ezkerrera ta bat-batean jarri zitzaizkan ezker-eskubi lagun guztiak opizialari, atera-bidea itxitzen. Emendik ez da iñortxo aterako, oju-egin zuan opizialak eta ori esanda guztiak batean sastakai ta labantzarrak aterarik gerrian sartu zituzten. Poli txikia ere, ez dakigu nondik etorria, errenkadan jarri zan beste laban batekin.

Barroan ixildu zan jendea. Begiak borobilduta izututa zeuden. Askok bildurrez besoak altxa zituzten. Opizialak bekain ikaragarriak jarri zituan. Bai besteek ere. Ez zan arnasik nabaritzen. ormako orduaria tik-tak asi zan.

Opiziala aurreratu zan, mai bat artu zuten eta nai zuten guztia eskatzeko. Pixkanaka jendea mugitzen asi zan. Banaka batzuk poliki atea artu

zuten. opizialarenmaiean gogotik ibilli zan edaria. Ta ango konturik ez zuan iñortxok pagatu.

Akulamendiren egonaldia bukatu-urren zegoala, nereko gure ontzia ederki zaletuta zegoan andik ateratzeko ta ordu gutxi barru lotu-sokak kendu zizkatenean poztu zala esango nuke. Zebait eguneko nagiak kendu ta itsaso aundiko bidean asi zan. Poliki asi ontzi asko zebiltzalako. Ura illuntzen asia zan. Akulamendiren estarriak ots-egin zuan agur esateko. Erriak erantzun zion. An gelditu ziran etxe-pilla ta tontorrak. Ta illunabarreko ordu itunean ibilli zijoala, bide-baztarreko ikusgarriak illunpeak arrapatu.

EKAITZA

Poli azi egin zan. Oraintxe gizon-itxura pixka bat artzen asia zegoan. Gizonen lanak egiteak eta gizonen artean bizitzeak asko egin zuten mutilla. Denbora ere aurrera zijoan. Lengo zakar ta bigurri izatea ba-zeukan oraindik ere, baño lanera ta gizartera jarri zan.

Egia jaioterri maitea gogoratzen zitzaiola, batez ere bakar xamar edo aspertuta egoten zanean, ta, alakotan, erri-miña ta naigabea etorri oi zitzaizkan, naiz-eta iges egitean gozagarri aundirik utzi ez.

Lur eta erri berri asko ikusi zituan. Legortarrek ez dakizkite itsastarren erdiak ere. Antzik ere. Itsastarrek asko ikusten dute mundua legortarrek ez dakiten aldetik. Poli gauza asko ikusia zegoan. Arrigarriak eta parragarriak. Ezerk ez zion parra geiago eginerazi Noruegako erriska batean gizonak kaniketan ikusteak baño.

Ta Lostramori gertatua? Ba-dijoa bein bakar-bakarrik elizara, Inglaterrako erri txiki batean elizan, biotza ikututa nonbait.

Sartzen da otoi egitera. Andik pixka batera, santu guztieri agur esanda atea artzeko asmo-tan asten danean, non illunpean, eliz-zaiak non-bait, makilla batekin jotzen du Lostramo. Biur-tzen da bat-batean Lostramo ta jotzen du ukabi-llez ta an ziak eliz-zaia ankaz gora makilla ta guzti. Eliz-atarian jende puska bat bildu zitzaion Lostramori. Lostramok guztiak jo nai ordea.

Kapitana jakiñan gañean jarri zutenean etorri-zan eta egiñalak eginda arazo ura azkenean kito. Eliza protestantia nonbait eta an eliztarrek kan-pora atera bear dutenean atzeraka ibiltzeko oitu-ra izaki, ateari bizkarra eman ez. Ta gure mariñe-lak aurreraka ibiltzeko beste oiturarik ez eta orra non istillua sortu eliz-zaiak etxeko oiturak era-kusteko bide egokiagorik ez zekialako.

Sukaldariari maiz asko egiten zioten odol txarra. Bein ostu ziotenarekin baldea bete txokolate egin zuten eta galletak zukutu ainbeste.

Baño oriek guztiak alde batera utzita, ikara-garria izan zan Milfordetik aterata itsas zabalean arrapatu zituan ekaitz gogorra.

Goiz-aldean bestetan baño beranduago argi-tu, ura argitzea esatekoa ba-zan. Aize-txistua asi

zuan bizi-bizia ta bereala ontzia balantzaka aundiakin asi. Barrengo guztiak ikaratu ziran. Asizan kapitana egiteko asko agintzen: onelako kentzeko, alako estutzeko, atea itxitzeko, ea arrikatz asko al zegoan.

Olio-ontzi guztiak uretara, oju-egin zuan batean. Ta bereala lagun gutiak asi ziran olio ederra ontzi ta guzti aidean botatzen. Alako itsasoarekin arrisku aundia zegoala ta karga guztia uretara bota. Ontziak bota ta bota an zijoan dantzaz diruak balio zituan olio. Olatuak pillan arrapatzen zituanean itsasontziaren kontra jo ta lertzen ziran asko.

Ortzia beltzagotu zan eta ea ostera gabean sartu bear ote zuten. Aize-txistua biztu ta itsasoa txoil nastu zan. Ekaitzak bete-bete artuta zeuden. Ontziak ezin zezakean gorabeera aundiagorik egin ondoratu gabe. Zoritxarra gañean zeukaten.

Akulamendi gaxoak aurrez-aurre arrapatzen zituan olatu aundiak. Nai ta nai-ezko borroka! Artzen zituan erditik eta bi puska eginda, etxea baño aundiago, rraast! ontzi-gañera urerz baztar guztiak betetzen. Urrena, beste olatua arrapatu

arte, asten zan beera inpernuraño jetxi bear balu bezela. Barrengoek zutik ezin egonik dantza ikaragarria zerabilkiten.

Itsasoa arras erotu zan; odeiak kopeta ilundu zuan ekaitzak, aize-txistuarekin zemai ta irañak bota eta olatuekin ukabillez ontziari dunbateko errukarriak eman. Jo ta jo aspertzeko itxurarik gabe. Eguardia zanik ez zuan batere eza-gun.

Ekaitzak, itsasoa irakiten, sendo irauten zuan asi bezin gaiztoa. Arratsaldean eromena berbera. Olatuek erruki gabe astintzen zuten ontzigaña. Leiarrek txiki-txiki egiñak zeuden. Barandaua, autsita. Zintzilik egoten zan txalupa, itsasoak eraman.

Itsasontziek gañean izaten dute sukaldea ta opizialaren gela ontzia gidatzeko. Sukaldean ez zegoan iñor. Opiziala, bigarrena, txanda zuala arrapatu zuan ekaitzak eta antxe ezin aterarik egon denbora gutian. Ontzigizonak beean zeuden. Kapitana ezik, beste guztiak aurreko aldean, ta kapitana, bakar-bakarrik, atzeko aldean. Akulamendi bezelako ontzietan ezin izaten da pasa aurreko aldetik atzeko aldera gañe-

tik ez bada, tartean galdarak eta makinak egon oi diralako. Ez zan iñor mugitzerik, beraz. Eta guztietan okerrena bigarren opiziala, gelako leia-rrak txikituta bakarrik gelditu zana.

Arratsa gañean zalarik iñork ez zuan jateko-rik artu. Kapitana deika aritu zan su-egilleri kape eske bekoekin itzegiteko izan oi duten tutu baten bidez. Baño iñor mugitu ez. Sukalderaño joaterik ez zan, ezta opiziala zegoan tokiraño. Ta antxen egon bear guztiak, ez jan ez lo, kape pitin bat bederik, ontzietan artzeko oitura aundia dutelarik.

Ekaitza, berean. Aize-txistu zorrotzak dardarka jartzen zuan jendea. Olatuen enbata indartsuek barrengo gauza guztiak lurrera botatzen zituzten. Ontziak atzea goraño altxatzen zuanean azpiko errotak aidean burrundara sendoa ateratzen. Tarteka euri-zaparrada galantak. Akulamendi gizaxoak gau beltzean olatu madarika-tuak beste lagunik ez. A zer lagunak.

Kapitanak ots egin zuan:.

Olio guztia uretara bota! Ondo itxi dana! Ikatz asko gelditzen al da? Itsasoak txalupa eramandu.

Ontzigionak bildurtuta zeuden. Sugiñak eta makinistak sendo lan egiten zuten, bear zan guztian beintzat. Ontziak sua bear barrenen indarra izango ba-zuan. Eta ala ere! Ontzilagunak gau guztian alkarrekin egon ziran, Pinisterre ezik, oeratu bakarra. Ia alkarri itzik egin gabe. Lostramo, eskuan miñ-artua olio botatzen. Beste bat ere bai, Erroke zeritzana, miñ-artua. Lenengo opiziala aruntz eta onuntz zebillen, barren artan ibilli zitekean moduan. Aien arpegiak! Poli gazteak umeago ematen zuan itxura artan. Gaztelu zaarreko lo-zulo maitea! Batez ere opizialari begiratzen zion, arengandik zetorkion iraupena. Ez sukaldariarengandik. Ura zebillen berritsu bakarra. Ai, Txo, toki onera etorri aiz bizitzera, au bizitza ba-da! Eta ala ba-da ere, ez denbora luzerako, eta denbora gutxirako ba-da ere, ez nolanai itota! Eta ori esanda, sukaldariak, noski, aai! bizia atera zuan balantzaka batez arrai-kaja aundiak, elduta zeukanak, galtzarbetik iges egin ziolako. Ostera sendo elduta Lezoko Gurutze Santuari egin zion gogorapena. Meza bat eskeñi zion. Dirua da gutxiyena, zion, ortatik sobra ez izanagatik, bizitza, bizitza! Ez gaude orren zar-

tuak ajolik ez izateko. Damutan niok, i, Lostramo, kaja zijoakion, ik bezela erriyan urte guztirako argiya ez jarriya. Baño eztakit oraingo txanda ontan, argi edo ez argi, danak berdin il biar ote degun. Jainkuak Guarda! Goizeko argiya beintzat, eguna zabalduko balu. Ai, Txo gaju ori, gazterik asi aiz gorriyak ikusten, au gorriya baño beltza obeto ez ba-da.

Zagoz ixillik, barritxu ori! ekin zion opizialak. Ta sukaldaria ixildu zan. Ala ere ortz-tartean il-bear au gogorra da, zion begiak bustita. Egiazki, parragarria izango zan sukaldaria ontzia orren gaizki ez balebil.

Mariñel batek:.

Mutillak, ez degu orren itxura txarrekoak jarri bear! Par egin dezagun. Esan ezak, Lostramo, zer pasa zitzaikan Noruega eliza protestante artan.

Lostramok:.

Ezerez, an oitura dute elizatik atzeraka ibiltzen ateratzea. Ta ni, non sartu nintzan ez nekiala, aurreraka atera nintzan, nere bizi guztian ibilli naizen modura. Ori ikusita, etorri zitzaidan eliz-zaia ta, esku-makillaz ez ninduan ba jo?

Jotzen det ukabillaz ta ankaaz gora bota nuan lurrera. An sortu zan istillua.

Sukaldariak:.

Bai, bai, par egintzazute; zuetakoren batek aitortu biarko diyo Jainkuari neri lengo egunian txokolatia ta galletakin egindako lapurreta.

Tutuak txistu egin zuan ta opizialak dio kapi-tanari:.

Ez dago sukaldera joaterik. Eraneunez geroz-tik ez degu jan. Kapia bederik ez da posible era-matea. Lostramo zerbait min-artua olio-latak botatzean. Pirriste da bakarra oeratu ta lo egiten duana.

Polik berekikoz: Gaztelu zaarreko lo-zulo mai-tea.

Gaua luzea zan. Ekaitza luzeago. Eguna nekez zabaldu zuan. Ontzigizoneri nekea etorri. Nekearen ondoan, otza. Zuri-zuri eginda, larria biotzean, zai zeuden ekaitzaren azkena ikusteko. Aizea gutxitu zan, baña olatuak lengo tankeran jo ta lertu, bata bestearen ondotik.

Eguardi-aldera argitu zuan. Aizea, gutxiago. Akulamendi ez ain dantzari. Bigarren opiziala bere bakar-tokitik atera zanean, arratsaldean,

ogei ta amazapi orduko egona eginda atera zan.

Sukaldaria beartu zuten sukaldera joaten, ezezka asi ba-zan ere. Ta Poliren laguntzarekin andik pixka batera ontziko gzutiek kape beroa nai aña artu zuten.

Kapitanaren aginduz, aparria gertu bitartean, ekaitzak ontzian egindako ondamen eta okerrak antolatzen asi zan jendea. Itsasoa oraindak ere txar xamarra zegoan. Ekin zioten bada lanari urdalleko beroarekin lasaitzen asiak. Egiteko asko zegoan. Itzegiteko gogoa etorri zitzairen bildurra zijoakien era berean. Non, irria ere ezpañetan zai zegokiela, non usterik gutxienean negargarria gertatu. Pinisterre maitea! Gañean aal bezela ari zirala, jausten zaio goiko muturretik burni astun bat eta burua jota zerraldo erori lurrera. Kaskezurra autsi. Bereala illa zan.

Iñork ez jakin, ez ikustekotan, ezta antzik eman ere, alako eriotzak nolako biotz-zulatu egiten duan.

Eraman zuten oe-gañera. Bi kandela jarri zituzten, ontziaren balantzakin ez erortzeko tanke-ran. An ikusi bear gizon aundi aiek malkoak

begietan. Sukaldariak, dakigunez oso biotz-bera, bi besoen artean artu ta mun eman zion, berarentzat itz eztitsuak esan bitartean: zoritxarrak onena jotzen du beti, zion. Poli ere negarrez, ordurarte maitasuan ainbesteraño nabaritu ez zuana. Pinisterre guztietan onenetakoa zan.

Bi orduan lagun egin zioten gorputzari, kandelan argitan. Ta bi orduak pasata an asi zan malluketak anima berbera ikutzen zuan. Egur zan bartzuk artuta nola-ala iltzez josten asi ziran. Lenbaitlen jostea obe, malluarenots ura gogorre-gia zan. Bai, alako lanak errezegiak dira itsason-tzietan eta denbora gutxiko guztiak ontzi-gañean zeuden buru-utsik gorputza aldean.

Jarri zuten, oi bezela, atzeko muturrean ola luzea irristagarri. Eraman zuten gañera. Une onetan guztiak zutik zeudela, kapitana ta opizialak eskua kopetaren ondoan, ala esan zuan kaptanarak:.

Errezatzen dakianak erreza beza Aita gure bat.

Ta pixka bateko irristaka asi ta olatu tartera erori zan.

Itsaso madarikatua! Gorputz bakarrarekin ezin asetu. Gorroto zikiña! Geiago eziñaren amorruz, ontzi-lagunak doi-doi biurtu zirala, olatu aundi batek jotzen du ontzia ta gorputza berriz ontzi-gañera kaja lertuaz olatuak botata. Gosea barruan ta estarri-zuloko biotza balitzaio bezela indarrez biurtu kanpora.

Ostera kaja osatu len baño aulago, malluak nekatu-urren, ta lengo bidetik bigarren irteera. Itsasoak iretsi zuan.

Onela ordaindu zion Akulamendik itsasoari beñere artu ez zion zorra.

AGUR ITSASOARI

Poli denbora puska batean ibilli zan itsasoan oraindik ere. Baño urarenganako gogoia egunean baño egunean gutxiagotzen zijoakion. Azkeneko ekaitzak, Pinisterren eriotzak, asko naigabetu zuten itsasorako. Bizibide artatik aski zuan, naiko ikusiagatik. Ta argatik bein Prantxiko Havretik onuntz zetorrela, e rrez baño errez izan zitzaion bertan zetorren bidazti bati Poli bereganatzea. Ea bere etxera etorri nai zuan. Gizon arek pasteleria zeukan eta pastelgintzan ikasiko zuan. Legorreratu-erria Pasaia zan eta iritxi-erria, Elizondo.

Bidaztiak atsegin zuan Poli. Izketaratu ziran. Gogaituta omen zegoan gaztea bizibide arekin. Ea eragozpenik izango al zuan andik ateratzeko. Ta gurasorik? Atsegin omen zituan sukaldelanak. Sukalde berrian usai gozoagoa, noski. Nai aña jango zuan. Nagusia, gizon ona. Pastelerira, beraz.

Itsasontzia Pasaiko aurrera etorri zanean arrats-aldeko labak izango ziran. Itsasbazterra oso polita zegoan.

Prantzi aldera oso urrutira ikusten. Azkeneko izpi ura Cap Breton aldea izango zan. Itsaso urdiña, bare-bare. Nork esan itsaso ura bera zala len ain zitala ibillia! Poliri ere gogoratu zitzaion.

Itsasontzia asi zan muturrez aurrera Pasaiko istunean sartzen. Kanpoan gelditu zan arkaitz-gañeko argi-etxea. Bira batera ta bestera, mendi-tartean, erdi-erditik zijoan bide estuan. Ondo legorrean barrena zijoan. Baztarreko etxe, pelota-plaza ta eliza joko ez ote zituan.

Agur itsasoari! Agur itsaso eder aundiari! Agur itsaso gaizto, zitalari! Irria azalean, barruan ontziak gizonez bete iretsiak. Lillura urrutian, eriotza tartean. Agur, zarpazar! Agur, ederra.

Agur, Akulamendi maitea! Leiala, zintzoa, nekatzen ez aizena, igeslarien babez eta aterpea. I aiz asko jakiña, i biotz onekoa. Pinisterre, gizonek botea, itsasoak biurtu al zikan ala eorrek ekarria? I ago gorriak ikusia, txintik atera gabea. I bazterrik-bazter ibillia ta ik ikusia itxua baintzak baño geiago ez zekiagu. I beti lanean ta

beñere dirurik ez. Gorde ezak etxeko jendea. Ibilli adi ondo. Agur, Akulamendi.

Oriek guztiak nik esanak dira. Nere arloa ez zalarik, artara beartu naiz, bada itsasontzia legorrera lotuta andik pixka batera Poli atera zan iñori ezer esan gabe ta lotu zitzaion Elizondoko gizonari. Bide puxka bat egin zuten alkarrekin eta maletak lurrean utzita urrena gelditu ziran Elizondoko tarranta etortzeko zai.

Elizondoko gizona ona zan itxuraz. Polik arenganako uste osoa zeukan beintzat. Egia beste iñorekin joateko ere ez zuala bildur aundirik, baño arek ez zion kezkarik ematen itxuan jarraitu bear balio ere. Ta itxuan zijoala esatekoa bai da, bada ez gizona bera, ez ango baztarrik ez zuan ezagutzen.

Tarrantan igota aurrera ondotxo ibilli ziranean erri aundi-itxurakoa agertu zan.

Erri au, esan zion gizonak, Irun da. Au zaigu bidezko erririk aundiena, Elizondo baño aundia goa. Baño gure erria polita dezu. Baztango erri nagusia da, baldin Baztan aditzea ba-daukazu. Aurki Naparroako mugan sartuko gera.

Tarrantan ba-zijoazen oiekin batean beste zenbait lagun: bi emakume Ondarrabiko arrai-saltzaleak, Donostiako senar-emazteak Lekarotzko Aztetxean zeukatenmutilla ikustera, bestemutil koskor bat bakarrik, karabinero bat eta bi maketo berritsu. Egia da berritsuek bere izkera belarri-zulotik sartzeko moduan itzegiten bazuten ere, tarteka Ondarrabiko arrai-saltzaleak ederki txautzen zituztela. Poliri polita iruditu ondarrabitarren izkera-doñua.

Naparroan sartu ziran. Poli konturatu zan itsasoa atzean utzita zijoazela. Endarlatzko alde-tik asi ziranez geroztik Poli biotza estututa zegoan. Izan ere alako mendi tarteko toki tristia da. Pasa ziran Santa Cruzek ainbat karabinero il zituan tokitik. Ez dakigu tokia berez itzala ba-dan ala ildakoen arriek itzal egiten ba-duten. Bidea aurrera, urruti xamar joan bear ez ote zuten susmoa jarri zitzaion Poliri, beñere legorrean ez orrenbeste ibillia.

Atera ziran, tarranta beti ari, toki zelai ta argi batera, barrena lasaitzeko modukoa.

Au Bera erria dezu, ekin zion gizonak.

Bera? mutillak izututa.

Ta kopeta argitzen asia illundu zitzaion. Ordurarte itzik atera gabeak bizi eldu zion. Gizona ere konturatu zan. Polik noizbait entzuna zeukan. Pinisterre Berakoa zala.

Bi belarrimotzak an jetxi ziran. Andik aguro alde-egiteko gogoia etorri zitzaion Poliri. Lenbiziko errukitea lotsa ta bildurrarekin aldatu zitzaion, alegia danen artean uretara bota zutela beste geiago jakin gabe iñori bururatuko balitzaio ere.

Andik pixka bat orduko tarranta Lesakako zubian zan. Lesaka, iturrietako urak eta errekek kaleetan jaun eta jabe ibiltzen diraneko erria! Batzuk sartu, besteak atera, bide zabalari jarrai, tarranta erriz-erri zijoan.

Nenbillen, nenbillen allaatu nintzen Sunbillen.

Mendi tarteetatik atera ta Baztan-aldeko zabalunean asi ziran. Orain bideko erriak ezik, Santesteban poxpoliña! urrutiko erriskak ere ikusten ziran.

Zuk esan bezela iñor zure billa ibilliko ez dalarenustean gaude, asi zitzaion berriz gizona kezkatzen asia. Ez omen dezu gurasorik. Ez da?

Ezta ontziko nagusiekin lotugarririk. Ez da al? Nere etxean ez zaitugu lan aunditara beartuko. Ondo biziko zera nai bezela janda. Itsasontzian baño lasaiago.

Atsegin det zurekin. Baño iñor azalduko balitz, berriz ere, ala zuk joan naiez geroz, ez zinduzket nik etxera lotuko.

Arratsaldea beeraka zijoan. Agur, Mugaire! Oronotz! Zeru-zolako argia, moteltzen asia. Baztango lurraldea belar joria zegoan. Urrutiko ardiak zorriak zitzaizkion mendiari.

Ba-zijoan gure tarranta, gelditu ta ibilli, gelditu ta ibilli. Bideko neskatxak agur egiten zioten. Ate-gañak eta ertzak arri-gorrian izan oi dituzte emengo aldeko etxeek. Irurita, Elizondo.

Antxe agertu zan Baztango erri nagusia, erri apain eta paketsua. Kaleek, besoak zabalik bali-tuzte bezela, abegi onez artzen dituzte kanpotar-rak. Sar zindezke lasai.

Tarranta gelditu zan, bada. Jetxi ziran, bes-teekin batean, gur gizon eta mutilla. Abiatu ziran, maletak eskuan, kaleetan barrena. Ta sartu ziran, Poli atzean, gizonaren etxean. Denda ura poliki jarria zegoan. Argi ederrean

ikusten ziran makiña bat apal, otzi ta pototxin, pastel, txokolate ta goxoz beteak, bai mama-goxozko botillak ere. Sartu zan nagusia barrenago ola baten azpitik pasata ta orobat egin zuan Poli gazteak. Itsaso zabalatik etorrira kaiola irudituko zitzaion, noski, etxea.

Aurreratu ziran biak etxekoandreagana ta itz batez esan zion nagusiak langille berria zekarrela, gero xeetasun guztiak esango ba-zizkion ere.

Une batean korrika agertu ziran etxeko bi alabatxoak, atariko neskak ikusi-mikusi zeudela esanda.

Jarri zitzaizkion begira irria ezpañean, eskuak atzean. Zarrena amabost urtekoa, Katin zan; bigarrena, amabi urtekoa, Gexina, Esterenzubiko aitonak ala naita jarritako izenak.

Arrats artakoa egin zuten. Guztiok batean apaldu ondoren lo-gela txukuna erakutsi zioten mutil berriari ta, bigar arte.

Ondo lo egin, esan zioten neskak Poliri.

Polik ezta erantzun ere.

ELIZONDO-N

Urrengo goizean Poli esnatu zanean gortu zala iruditu zitzaion, ez bai-zuan entzuten lengo gabero-gaberoko burrundara. Ixiltasunak min geiago ematen zion zalapartak baño. Otsa ta zaratakin oitu ta ezin ixillean etsi. Oeari astindu bat eman zion ta, noski, ez zegoan gortuta. Bide batez, itsasoko ibillera ez zalarik, gorputzari ibillialdia eman zion. Ixiltasunak eta geldi-egoteak kezkatuta zeukaten, beraz.

Jeikita kapea egin bearke zuala, baño, ezta ura ere. Zer arrantara etorri ote zan? Etxekoek ez zioten deitu nai aña lo egin zezan. Ta Poli norengana joango zan? Nola ibilli bakarrik etxebarrunbean? Ango garbitasun eta zurtasunak bildur ematen zioten. Gañera etxeko neska aiekin, egia esan, lotsak artuta zegoan.

Poli etxeko mutil laztana zan. Nai bezelako semearen tokian etorri al zitzaien? Seme jatorra izanda ere ez lioteke obeto begiratuko beintzat. Agian kaltegarri. Bizibide biguñegia zitzaion. Ez zioten lan aundirik ematen. Oporra, nai zuanean.

Atzenean zer nai zuan ez zekiala gelditu zan: oporrean zegoanean lana nai, lanean ari zala oporra gogoan. A zer tamala! Mendiko motxala ezin gurdiari lotu, noski.

Ba-zekian erri guztia: Merkatu estalia, arkupea, Arizkuneko etxe ederra, Erri-etxea orobat ederra, Foruen plaza, eliza polita, Santiyo-kale txukuna, jauregi arteko Prantzirako bide zabala. Askotan egin izan zuan bide zabalez Elbeteara joan, zubia pasata, etxe-tartean ibilli ta beste zubitik etorrita, ganadu-periko belardiaren ondolik ostera plazara. Antxitonea trinketea berriz, Merkatu-ondoko zubiaren aurre-aurrean. Alde artatik ikusten zan ondoena Baztan-ibaiko zurrunbanoa, ur-jausia. Ai, itsasoko ura, egiten zion ibaira begiratuta. An ur gazia, emen garoa.

Etxeko lana ariñegia zitzaion. Beti toki batean egoteak asko aspertzen zuan: ezin gorabeeera ibilli, ezin indarririk egin. Ortxe nonbait len ere sukalde-lanetan aritua zala, sukaldea ta lanak berberak ez izanarren. Emen gauza berri asko ikusi zituan, noski. Ez uste berak txotxoak orren errez egiten ziranik. Ezta mataxak ere. Bota ontzi batera azukre asko ta kapea ta esnea,

sutan gal-gal egin arte jarri ta salda lodi beltz ura marmol-arri batean zabaltzen zuten. Urrena txo-txoak markatu, asko batean, ta gogortzen ziran, klask! guztiak batean atera. Orduan pusketan egin eta orra txokoak. Bestetan alako mataza zuriak egin eta guraizeakin kilx, klax, aidean joaten ziran txotxo zuriak.

Eta onela beste txotxo-motak ere. Ta nork esan Donostian jaten zituan «tetillak» zuringoa ta azukrea besterik ez zirala? Ai, pastelak! Eta tartak! Artan nagusia zan iaioa. Bear zanean paper biribil batean merengea bota ta beeko txulotik jario zeriola zirriborro politak egiten zituan orregoxoetan. Onelakoxea zan Poliren lanbidea. Askotan orrea bati-bati egin, bestetan sukaldetik dendarra pastel karraioz. Arraultza ta guriña asko sartzen zan etxe artan.

Poli itz gutxiko mutilla zan. Poli maite zuten etxean asko. Agian Polik ere maite zituan etxe-koak, Ez jakin ordea, ez bai-zion iñori samurtasunik erakusten. Etxeko neskaekin oso-osoko adiskidea ez zala esango nuke, batez ere zarrenarekin. Aiek gogo onez egiñak zakarkeriz ordaintzen zizkien. nai zioten, baño ezin adiskidetu. Bein

zerbait eskuetan dendara asten ba-zan, bidera etortzen zitzaion neska zarrena berak ekartzea-gatik; ordea, erdeñu txarra egin eta ukalondoa-rekin bultzatzen zion mutillak. Neska gajoa ikar-ratuta ixil-ixillik gelditzen zan.

Etxe artan izan zuan Polik lenengo gaxotasu-na. Pastel-apurrak zirala, txotxo-puskak, osatu gabeak, zirala, «libre» zeukan nai aña jatea ta pastel ta txotxo osoak jan naita ere ez lioteke aitzaki aundirik jarriko. Polik bear baño geiago jan zuan asieratik. Jan-da-jan gaitz egin arte. Goxoekin aspertzen asia zaneko gaitzak jota zegoan. Gaztea ez zegoan ondo. Goxoz «atraka-tu» zan ta aiek min egin. Buruko miña asten zitzaion, baño ez zion iñori ezertxo ere esaten. Egunak joan, mutilla okerrago.

Itxura txarra asi zitzaion. Etxeko nagusi ta andreak zerbait igarri zioten. Ezetz, ez zuala iñongo miñik. Sukarra gero ta geiago. Bein, apa-ritan, mutil gajoa burua atzera, besoak zintzilik, gelditu zan sillan. Artu zuan nagusiak aidea eta oeratu zuan. Sukar ikaragarria zeukan. Asi zitzaion burua erotzen. Neskak bere gelan ikusi zitualako ikaragarrizko karraxia atera zuan eta

burua maindire-azpian gorde. Sendalaria ekarri zuten. Ezin ezere artuazi. Bear-bearrekoa zan, ordea. oso gaizki zegoan. Etxeko jendea ikaratu-ta. Katin ta Gexina negarrez. Alako batean lozorroak artu ta ametsak ojuka egiten zituan. Bein, geldiro, Gaztelu zaarreko lo-zulo maitea! Artuazi zioten atzenean, ojuak egiñagatik, eta galanki sartu ere. Noizbait barrena garbitu zitzaion, sendatuta zegoan.

Egun batzuetan kontu aundia euki zuten mutillarekin bear bezelako jana ta bear zan garaian emanen. Etxeko semea izan balitz ez lioteke obeto begiratuko, diran laztan eta maite itzakin. Dendan askok galdetzen zuten mutillaren berri. Azkenik asi zan kalera ateratzen oraindik arpegian gaizki egondakoaren itxura txarra ezagun ba-zuan ere. Erriko jaiak ez ziran urrutita, naiz egun aietan bestetan baño lan geiago izan, Polik ez zuan lanik egingo, ezertxo ere, ondo-ondo sendatu zedin. Bitartean jantzi berri bat egin zioten jaietarako.

Jai-bezpera etorri zan eta asi ziran arratsean musikariak kalez-kale. Aidean, txibiriskoek zala-parta.

Urrengo egunean, ni neroni Elizondon nintzala, etxeko berririk jakin ez edo nere gelako leiatilleri begiratzea aztuta, egunaren lenen argizpiek esnarazi ninduten bear baño goizago ta jaiki ta leioa itxitzeko nagikeriz, antxen egon bear izan nuan egonean erri aunditik erri txikira etorria. Ixiltasun aundia zalarik nere entzumena ere osorik esnatu zitzaidan ta ni zaratan oitua izan ez eta polliki-polliki goizeko kinkik txikiena belarriratu ta nabaritzen nuan.

Artan nengoala txorrien pi-piak oso bertan nabaritzen nituan, araxeago igelen korroka ta ibaiaren eten gabeko zurrunba, urrutiago ollarren kukurrukuak.

Etxe bateko ollarrak ots-egin eta beste etxe-koak erantzun, noizpeinka urrutiagoko bat tartean. Asi nintzaion nere buruari, beste egitekorik ez bai-nuan, zer izketa-modua izan zezatekean txapel gorriko egazti oriek, baño utzi egin nion arloari buru-auste geiegirik ibilli gabe. Ollarrak bertsolari ari zirala elizako kanpaiak asi ziran berriz joka, urrena kristauen otsa kalean, gurdiak ere asi ziran eta egun berrian oso-osorik sartuta geunden. Santiyo-eguna! Lotienak

atzean gelditu ez zitezten txibiriskoak igo ziran aidean ta ikaragarritzko zalaparta atera zuten. Musika ere atera zan eta arek alaituzituan erriko kaleak, txilborraren gisa etxeek arma-arria duten kaleak.

Erri guztia jeikita zebillen. Baztarrak alaitu ziran. Merkatua ta arkupea jendez beteak. Atsegin ematen zuan gauzaren ekarriak. Baratz artan elizondotarrak ez lirake sabel-uts geldituak. Ba-zebillen jendea gauzaren tartean ara-onera, gazta zarrari arra bezela, oi duan mar-mar luzearekin. Estalpe artan baserritarrak eta kaletarrak, goikoak eta beekoak, aza ba-zan ala egaztia, naspil gozoa zebillen mendiko usaiarekin.

Mezatarako prestatu giñan. Zegoaneko eguzkiak sendo jotzen zuan. Elizondoko eliza ederra! Eliza euskalduna! An ikusi bear erri aunditik erri txikira etorriak itz-santua euskeraz meza nagusian entzuten. Elizondoko eliza maitea, Jainkoak gorde zaitzala beti euskaldun! Gu ere antxen giñan meza nagusian. Nik ezin ulertu dek federik ez dagoan errietan jaiak ondo jaitu nola dezateken, alegia mezarik gabe jaia nola izan diteken jai. Guk kristauok, bedeinkatua bedi Jainko ona,

mesede aundi au ba-daukagu. Elizondoko meza nagusian kedatza ta kanta santuak nastu ziranean orduan zan benetan animaren jaia. Soñu ederra barren santu artan entzun genuana. Ondo biotz onarekin atera giñan.

Kanpoan eguzkiak kixkaldu bear. Mezatarrak zabaldu ziran. Eguardia ez urruti ta jendea asi zan berriz Merkatu estalirako. Ta an, itzalpe gozo artan, len ainbeste gauzez ikusia, orain itxuraz arras aldatuta, musikari pilla bat mutur batean ta Elizondoko neska poxpoliñak egurasten joan-ettorrian. Ba-zan nori begiratua.

Onela izan zan bazkari artekoa. Ni ostatura biurtu nintzanean bazkaldarrak oso ugarituta arkitu nituan. Bazkaltzen batez ere auek oartu nituan:

pillota ta partida maiz aipatzen zuten gazte zintzo batzuk, aldameneko ingeles emakumezko bi ta arago ego-aldeko ume zikin batzuk emakumeak beren izkeran ari ziralako iseka ta parrez ari zitzaizkienak.

Arratsaldean jende asko zan Elizondon inguruko errietatik etorria; baita urrutiagotik ere, Iruñatik batez ere. Kale ta edaritegietan tokia aña

sartzen zan jendea. Tarteka kantariak ba-zebiltzan. Jai-tokia, ordea, Foruenplazan zan. Ura lekune zabala bai dan, jostagarri guztiak aratu zituzten. Gañera musika-tokia enparantzaren erdi-erdian dago. Ta mutil ta nexka koxkorrak goxoak saltzen zituzteneko maieri pega-pega eginda egon bitartean, gaztetxoek dantzari eman zioten, arri zabalak dauden tokian. Beste asko errenkadan jarrita, bi aldeetan, exerita zeuden begira. Arizkun-eneko aurrean ba-zan «tiobibo» deritzan tramankulu orietako bat, eskuz naiko izardia aterata erabiltzen zutena ta aren parean gora ta beera ibiltzeko beste baezpako bat. Ura ere eskuz ibiltzen zana ta ez zan arritze-koa ume-toki aietan ezin kabiturik baserritar sendokote batzuk binaka ikustea. Gurdiak itzaia eramango balu bezela. Arizkun-enea ta Erri-etxeko tartean, berriz, beste gorabelaria.

Tramankulu aiek zeuden aldean, ordea, ba-zan toki askorik belarraren gañean. Ta an ari ziran txerpolari batzuk indar eta par eginerazte-ko lanetan. Bi gizonezko, bat nagusia, ta mutil koskor tripa aundia. Emaztea, ura ere gizen xamarra, itsusia, beltza, zikiña, txima-jario ari-

tzen zan uskeriak saltzen, orraziak-eta, jendearen tartean bein gizonezkoak egiteko bat bukatzen zutenean, lenbizi eskabidea egiñaz gañera.

Tarteka, erriko musikariak ixilik zeudenean, txerpolariak asten ziran bere aldiko. Mutil potoloak klarineta jotzen zuan, tonto-papera egiten zuanak giltzakiko kornetiña, nagusiak tronboia ta emakumeak saltzeko ugala lepo atzetik kendu ta zanpa ta txintxinak jotzekoa jarri egiten zuan. Ta musika baña zalaparta geiago ateratzen zutela-ta, jende asko biltzen zitzaien inguruan.

Txerpolari auekin zerbait geldituak gera, irakurlea, ta ba-da zertaz oar-egin. Nik neronek ikusi nuan Poli, oraindik zuri antxa arpegia, jantzi berriarekin, besoak arri zabal baten gañean, arpegia eskuen tartean, arriturik txerpolari aien irabio, ikotika ta tentelkeriak ikusten. Arratsalde guztian ez zan andik atera. Pixkana-pixkana bertago jartzen zan eta azkenik bertaraño iritxita nagusiari begiratzen zion aurrean zeukan guztian.

Onela joan zan egun artako arratsaldea. Gabez jende geiago zan dantzarako, gaztetxoak baño zaarragoak ere bai. Dantzari amorratuak

arratseko ordu biak arte egongo ziran alde-alde. Aientzat uraxen zan jairik onena.

Baño gai au utzita gatozen Poliren arira. Urrengo arratsaldean ere txerpolarien tokira joan zan. Berriz ere geldi. Poli nagusiari itzegiten? Ta alaxe zan, aiekin batean bizitzea eskatu zion, berak ere ba-omen zekizkian zenbait gauza egiten. Nagusiak erdeñuz begiratu zion eta ezta jaramonik egin.

Poli lengo tankera jarri zan eta berriz ere egon. Nagusiak noizbait begiratu zion eta berekiko ez lizaiekela gaizki beste lagun bat izatea ta batez ere arek zirudian bezelako mutil gazte ta ariña.

Egun ura ala joan zan.

Irugarren egunean Poli azaldu zanean nagusiak eta andreak alkar-izketa izan zuten. Polik lengo egiteko berbera egin zuan orain ere. Ta alderatu zitzaionean ala erantzun zion nagusiak:.

Gu biak goizeko zazpitan ba-giatzik erri ontatik eta nai badek, etorri adi, baño ez adi jantzi orrekin etorri.

Irakurlea, izazu kupida Akulamendin ezagututako Elizondoko bidaztiaz eta baita ere bere emazte ta alabaetzaz.

APAIZ DONOSTIARRA

Mando bat gurdi bateri tiraka zijoan arbol ederrez ertzatutako bide zabal artatik. Goiza ederra zan. Lurrean enbor-errañuak tarteka. Gurdia zebilela osto-tarteko eguzki-printzak mutur batetik besterañoko ibillera egiten zioten urrena lurrean gelditzeko. Mandoa nekez zijoan.

Gurdia aundia zan, lau aldeetara itxia, goitik ere bai, noski. Gurditzat artan bost kristau zijoazen. Kristauak ezik lanerako tresnak eramaten zituan ta orobat zan lo-gela, sukaldea ta musika-tresnaen gorde-lekua.

Poli ere barrenen zijoan. Jantzi berria etxean utzi ta zaarrarekin etorri zan. Ezta agurrik ere. Antxen utzi zuan pamili osoa. Aien egun berria! Txerpolarien gurdia Iruritako bidean. Mandoa oso nekez.

Mutil potoloak Bentura zuan izena. Eskolan etorriberrieri egiten zaien arrera egin zion Benturak Poliri. Bildurrez asi ba-zan ere berealako iñon diran galderak asi zitzaion egiten.

Poliri parragarria zitzaion ta berekiko makiña bat astiñaldi eman bearke zizkion. Noizpeinka erantzuten zion. Aundiak ixilik zijoazen, agian entzun naiez. Polik pasteleria aipatu zuanean bat-bateko arras borobildu zitzaizkion begiak Benturari. Ai tontua, ta onera etorri? gazteenak. Parra egiteko gogoia etorri zitzaion Poliri «tontua» esan zionean. Ai tontua, berriz ere, emen, ixillago, jan gutxi ta txarra.

Ez dakigu nagusiak entzun ba-zion ala ez; onela itzezin zion beintzat aurrean mandazai zegoanak:

I, gaur etorritako ori, i, nola dek izena? Ik, bai, Poli? Ez uste gurdian ibiltzera etorri aizenik, e? Emen jateko lana egin bear da. Denbora asiko gaituk opiziyua ikasten. Ba-al dakik atabala jotzen? Berdin da, onoko au artuko dek eta gaur bertan asiko aiz gurekin batean musika jotzen.

Gurdia malda goran gelditu zan errian sartu baño lentxeago. Erri polita Irurita, etxe zuri ta garbiak. Etxe ederrak enparantza zabalean. Eli-zondoko gisa emen ere egal aundiko etxeak dira, arri gorrizko arma-arria erdian. Ateak burni zaa-

rrerz iltzatuak. Leio batzuetan zangorriak ageri ziran.

Egun artan igandea zan. Joan zan nagusia alkatearengana, ea musika jo ta enparantzan ari ote zitezkean. Baietz, baño meza nagusiaren ondoren. Bitartean eraman zituzten gurditik lanerako tramankuluak. Poli zoraturik zegoan bere atabalarekin; oraingoan joango zitzaion gaizki egonaren itxura.

Meza bukatu-zai antxen zeuden jarriak, eliza ederreko alde batean, Bentura ta Poli aurrean, andrea aien erdian, baño atzerago, ta bi gizonak atze-atzean.

Egun artan San Inazio izanagatik ez zan beste igandetan baño ospe geiago. Naparroan ez bai dute Gipuzkoan bezela jaitzen.

Meza bukatu ta jendea ateratzen asi zanean, asi ziran bere aldiko musikariak jo ta jo. Jendea gelditu zan aieri begira. Txerpolariek lenbizi bira osoa eman zioten enparantzari. Urrena errian sartu ziran kalez-kale ta, asko nola ez bai diran, andik pixka bateko berriz plazan ziran. Traman-kulu aiek norbait urkatu bear zutelaren itxura

obeto zeukaten. Jende asko bildu zitzairen beintzat.

Musika ixildu zan ta orduan nagusia asi zan barra zear batean iñon diran irabio, igotze ta jeistek egiten. Nagusia ortan iaioa zan, aspaldian ederki saiatua. Bein tzitilik buruz beera, urrena ankaz gora besoen gañean. Tankera onetan bere burua bota besoak kenduta ta buruz beera erori bearrean zutik gelditzen zan. Eta onela beste egiteko asko. Asko txalotu zuten.

urrena asten zitzaizun bigarren gizona. Onek lur berdiñean egiten zuan lana. Asi ezkerretik eskubira ta eskubitik ezkerre, joan-etorrian egiten zizkitzun sekulako ikotika arrigarriak. Au ere ez zan txarra. Au ere txalotu zuten.

Jarri zuten gero lurrean bi muturrekiko kulunka, mutur bat beera ta bestea altxatzen zana. Igotzen zan nagusia eskallera batean ta beste gizona kulunkaren muturrean jarririk, saltatzen zannagusia gora zegoan muturrera ta onek ematen zion indarrarekin aidean botatzen zuan saltalaria.

Aidean bira osoa egiten zuan. Oso ederki.

Urrena Bentura mutilpotoloa. Onek bakarrizketak eta olerkiak buruz esaten zituan erderaz. Andreagandik makiña bat atximur kostatako ikastea! Geienean par egiten zioten.

Non, usterik gutxienean, bere menez, asten dan Poli. Norbaiteri entzun zion San Inazio eguna zala ta non asten dan.

Inazio gure patroï aundiya, kantari ta ederki kantatu ere. Nagusia asarretu zitzaion. Orregatik, bukatu baño len ezin ezere egin. Bukatu zuanean ba-dijoakio nagusita ta, apaiz bat ere bai zoraturik besoak zabaldua. Asi zitzaion laztanka ta nongoa aiz galdetzen. Donostiarra zala esan zuanean, apaiza ere ala izaki, lengo laztanaz gañera besarkatu zuan. Ea berarekin bazkaritara joaten utziko al zion, galdetu zion nagusiarri. Baietz. Ta antxen joan zan Poli apaizarekin.

Apaiza etxe-jabe baten arduraduna zan, edota, arek zituan etxeen ardura zuana, errentak artu-eta, bere elizako eginbearrez gañera. Apaizaren etxean zer jana ta zer edana ba-zan ta Poliri eman zion bazkaria ez nolanaikoa. Askotan asten zitzaion galdezka, baño Polik nai zuanean

erantzun ta nai ez zuanean ez. Ajola gutxi apaizari. Aren arpegi gozoa!

Beraz, donostiarra e? ango arrai ederra baneuka zuri emateko! Edan beste pixka bat.

Bazkariaz gañera bete zizkion sakelak jateko gauzez, eman zizkion bi botilla ardo zar eta arratsean aparitara etortzeko.

Txerpolariengana zanean nagusiak ardo-botillak kendu zizkan ikusi orduko. Arritu zitzaizkion. Andrea asi zitzaion senarrari, bakartu ziranean, Poliren bearra izango zutela esaten. Benturari ez diote ulertzen euskal-errietan eta nik uste, zion, arritu baño parra obeto egiten diotela. Polik euskeraz jakitea mesede degu.

Arratsaldean an ziran berriz txerpolariak. Asiera goizean bezela eman zioten, baño geroago par-eragitekoak egin zituzten. Eztiarena egin zutenean jolas ederra izan zan.

Joan zan, bada, Poli apaizarengana apaltzen. Ura ongi-etorria! Mai ederra zegoan apaizaren etxean. Apaizaren poza ez da esatekoa. Amar urtez lenago ezagutu balu ez lioke arrera ohea egingo. Apaldu zuten, laztandu zuan eta eguar-

dian bezela sakelak bete ta ardo-botillak eman zizkan berriz ere.

Apaizaren etxea trenaren geltoki-aldera zegoan ta andik errira malda dago. Gaba illuna zan. Poli botillak eskuan zijoala ba-dakus zakur aundi bat baño aundiagoko gauza illun bat bere-gana zetorrela korrika, ain zuzen ere! Poli gelditu lenbizikoz ta gañean zegoala alde batera egin zuan, arek alde artara jotzen zuan une berean. Baño zera azkarrago ta berealakoan aldez bestea egin zion ta an pasa zan, aari aundia.

Apaizaren laztanak, aariaren izuak eta maldaren nekeak egin zioten barren-ikutuaz Poli biotza taupaka iritxi zan bere lagunengana.

Ez ziran urruti. Poli begitaratu orduko asi ziran txerpolariak beragana, zer eman dik? zer eman dik? galdetuaz. Ardo-botillak lengo esku-aldakuntza egin zuten. Ezin esan Poli gaizki asi zanik txerpolarien tartera.

Urrengo goizean Iruritatik aldegin zuten. Apaizak zeukan udare-arbol ederra alerik gabe utzi zioten Poli ez-beste txerpolariak ostuta.

EZKONTZA-JAIA

Igandeak eta errietako jaiaz kanpora gutxitan airtu zitezkean gure txerpolariak, naiko jende biltzen ez zitzaielako. Ta erritik errirako, jaietik jairako tarte orietan, zer-egitiñik gabe egon bear izaten zuten. Ta, okerragoa dana, irabazi ez eta jan egin bear. Tarte orietan gorriak ikusten zituzten irabazi urria izaten zanean. Azkeneko bi errietan, orregatik, elizondon batez ere, txanponak parra-parra eskuratu zituzten. Gauza ikusia zan, bizi-tzak alderdi ederra ba-daukala dirua danean. Atsegiña bizitza, iltzea eriotza.

Ta, nagusiari, Poliri opiziyua erakusten astea otu zitzaion. Eldu ziran belardi batean eta antxen egin zituzten lenengo saioak. Aurreneko egin zezala berak zekiana. Errota ederki zekian, ordea alde batera bezela bestera ere bearrezkoa zuan ikastea. Errota da albo batean buruz beera ta gora egiten dan bira osoa, eskuak lurrean banaka ta segidan, oñak banaka ere.

Urrena jarri zan arbol zabal baten aurrean. Eskual lurrera bota ta ankaz gora, gerritik oker-

tuta, ipiñi zizkion oñak arbolari. Gisa onetara, gerria gero-ta okertuaz, oñak arbolan beera jetxi zituan lurreraño zubia egiñik; ostera igo ta asierako tankeran erori zan. Ura zan zekian guztia.

Baño ongi zegoan. Batez ere gerriko biguntasuna bear izaten da ta ortik aurrera ez da alako lan zalla izaten. Nagusiaren iritziz aguro ikasiko zuan bear zan guztia.

Lenbizi jarri zuan eskuen gañean ankaraz gora ibiltzen ikasten. Nagusiak berak eltzen zion zankoetatik ez erortzeko. Lenbiziko saioan ondo xamar egin zuan, lendik ere zerbait saiatua ez ote zan.

Gelditu ziran pixka batean atsedean artzeko. Nagusia ta Balentin, auxe zan beste gizonaren izena, alkarren ondoan exerri ziran. Poli ta Bentura, berriz, alkarrekin; ez urruti. Andrea gurdiaren barrenen gelditu zan jana maniatzen.

Aizak, Poli, asi zitzaion Bentura, ta pastelerian nai aña pastel ta goxo jaten al itukan?

Noski, Polik.

Zenbat bezela?

Aspertu arte.

Baño zenbat bezela?

Ezin sinisturik gelditzen zan mutil potoloa, batez ere janaren janaz azkenean gogait egiñik miliskatzen ez zuala esan zionean. Ai, tontua, berriz ere.

Goxoekin ametsetan utzi zuan nagusiak berriz deitu zionean.

Oraingo nagusiak eta Balentinek makil lodi bat artu zuten mutur banatik. Polik egin bear zuan eskuen gañean jarri, gerria makillari erantzi ta zankoak beste aldera bota, urrena burua jasota zutik gelditzeko. Lan onetan bai nagusiak eta bai Balentinek lagundu egiten zioten. Ondo ikastean makillarik gabe. Baita ere ariketa ori bera atzekaldera.

Ta oriek ikastean, arrisku-saltua; baño ortarako lenbizi gomazko zintzilikai bat konpondu bear zuan nagusiak.

Etorri ziran gurdiaren ondora bazkaritarako. Senar-emazteak barrenen sartu ziran. Balentin, Poli ta Bentura alkarren ondoan jarri ziran bideertzean. Burnizko plater bana artu ta andreak bota-ala jan zuten ogi-zuku beltza ta babarrun gorria urdagi-izpi batekin. Potoa, urez betea, iru lagunentzako edan-ontzia zuten. Ez zan txarra

aldameneko errekan beera zetorren ur prexkua. Ogia, gogor xamara; biguna jan-errexka izaten da. urrena, azken-maiez, udare bat eta bina galleta, Balentineri iru, apaizaren etxekoak.

Bentura, galletak jan bitartean, ixilik zegoan. Alako batean galdetzen dio Poliri:.

Ta zer egin bear izaten da pastelerian lanean asteko?

Galde akiok nagusiari, Polik parrez.

Abiatu baño len, euskeraz itzegiteko nagusiak esanda, galdetuzion Polik an zijoan bordari bati ea Etxalar zein aldetara zegoan ta noiz zira erriko jaiak.

Erantzunarekin etorri zan eta guztiak gurdian sartuta artu zuten bidea.

Onela ibilli ziran egun batzuetan. Arraiotzen barrena igaro ziran. Baño alako erri koxkorretan jende gutxi biltzen zitzaien igandea izanagatik eta aste-egunetan ez zan iñor askorik ikusten. Orretara, obe zuten igandez beste aundiagoko errian sartu. Gañera, azken-aldian itxurak zira-nez, edozein baezpako errietan aritzeko txerpolariak ez ziran, edo ala iruditu nagusiari.

Oronotz, Mugaire ta Oieregi, alkarrengandik ez urruti, ezere gabe gelditu ziran orobat.

Tarteetan Polik saioak egiten zituan opiziyo berrian ta oso aurrerapen aundia egin.

Bein, Narbartera zijoazela, algara nabaritu zuten bide-ondoan, jende askorena itxuraz. Mandoa gelditu zan. Bat-batean non azaltzen dira gazte batzuk zarata bizian txerpolariak! oju-egiñaz. Bereala lagun-pilla aundia bildu zan. Ea saio bat egin nai ote zuten ango barrunbean.

Tokia qq deritzaiona zan, len jauregi bikaña ta orain arrotz-etxe ederra. Ba-ditu bi muturretan dorre aundi bana, biak berdiñak. Baita ere, mendi-aldera, ba-dago erromatarrek egindako zubi zaarra. qqn gain-gañeko jendea bizi izan da. Orain ezkontza-jaia zan atsaldean eta gizaseme ta neskatx billera ikaragarria zegoan, Iruñatik etorriak. Txerpolariekin sortu zan zalaparta!

Gurdia bide zabalean utzi ta txerpolariak musika-tresnakin barrurako bidean ikusi zituztenean, oso alaitu ziran jolasa gogotik izango zutelakoan eta asieratik txalo beroak jo zizkieten etorriberrieri. Len nagusia arrotzen asia bazan, ederki lotsatuta agertu zan oraingoan.

Atarian jarrita sendo jotzen zuten bostak-ala-bostak. A zer zanpatakoak andrearenak! Nagusia aspo egiñik aizea ematen zuan bete-betea. Balentinen eta Benturaren pirripi ta txirola! Poli atabalaria tente. Billerak atera zuan par gozoa musika arrairo arekin! Ala ere, lenbiziko joaldia bukatuta, par egiñaz gañera esku-zarta polita egin zieten. Asi ziran ojuzaleak ardoa eskeintzen eta bost laguneri edan+azi zieten mama ederra.

Urrena oi bezelako irabio ta saltuak. Ez zuten txintik ateratzen. Txerpolarien lana oso atsegin zuten. Poli bera ordurako ondotxo ikasia zegoan. Errota ezik, esku-gañean ederki zebilen ta aurrealderako bira osoak, buruz beera ta gora, poliki zekizkian. Artaraño zegoan ikasia. Egiteko au bukatuzutenean, aien txalo-txaloak! Berriz ere txurrut eder bana nai ta nai-ez.

Bentura azaldu zan olerkiak esaten. Aren bekain illunak, aren beso-ibiltzea, aren abotsa! Ez zuan beñere aria galdu; ez zan buru txarreko mutilla. Obe beretzat, bestela ez leukake alderdi txarra maisu aiekin. Ta bestetan ezer ulertzen ez ziotelako par egiten ba-zioten, orain berriz uler-tzeagatik zetorkien egiñaldia. Alako jendea ain

gañeko gauzak esaten! Ta nola. Zimaur tarteko lorea esateko. Baño aiek ez zeuden ez baterako ez besterako, ez loretako beintzat.

Ta bukatu baño len, luze xamar ari baizan, asi zitzaizkion alagaraka, txaloka ta ojuka nastuan ta berrenera sartzeko ta eldu besotik eta aria moztuta barruan sartu zituzten txerpolari ibiltariak.

Noizbait pastelak jateko aukera etorri zitzaion Benturari. Bildurrez asi bazan ere, gero ta aundiagoak artzen zituan. I, Poli, ari zitzaion, onenbesteko pastelak izaten al itukan zuen etxean? Baita aundiagoak ere, Polik. Txautu zuan. Itza baño naiago zuten jatea, ordea. Ta jan ezik edan ere gogotik egin zuten bostak-ala-bostak.

Poli zuten maiteena. Maiez-mai zerabilkiten. Baño ur-utsez oitua egoki. Ta arrapatu zuan. Asi zan txerpolari jendeari par-eragiten. Ematen dio gero lurrean irabioka ibiltzeari. Jendeak par gozoa zegian balantza bakoitzean. Gizajoa, ordea, buruz beera eskuen gañean zebillen batean jotzen du kopeteko bat lurrera erorita ta izugarrizko odol-ixuria asi.

Izutu zan jendea, baño ez zan ajol aundiko miña. Nagusia, amorratuta. Miña garbitu ta lotu ta kanpoko gurdira eramán zuten norbaitek sakelean durua sartuta.

qqko ezkontza-jaiak dantza nai zuan. Ta atabalaria ez beste asi ziran jo ta jo, ta illunduta ere an aritu ziran, ura musika ba-zan ez ba-zan.

Aztu gabe andreak eskabidea egin zuan agur esaterakoan ta zillar pilla polita eskuratu. Polik zori ona ekarri lagungoari.

Gurdirakoan, ordeá, nagusiak durua kendu sakeletik Poliri ta ostikoz bultzatu. Asto jaio ta asto bizi. Poli gajoa lo zegoan. Ez zion begiratu txarrik gabe utzikoe rne egotekotan.

Bentura sakelean bigarko utzitako pastel azkena asi zitzaizun jaten.

ARRIKA

Udara-egun artan Narbarteko bidean zijoakean nornaik ikusi zezakean, bide-baztarrean, mando bat gurditzar bateri lotua. Euri-izpiz jositako zegoan belarri-puntetaraño. Burua makurtuta antxe geldik iñoiz geiago ibilli bear ez balu bezela. Gurdia ere, ala bear-ta, ura ere egon, ain ongi elkartuta biak! Ez jakin gurdia mandoari lotuta ote zegokion ala mandoa gurdiari.

Euri memel, txirtxilla ari zuan ta euria ari zualako ala beste iñor an aldean ez zebillelako, alaguk ez dakigun beste zerbait zalako edo ez zalako, gurdi-barrengo atabal-otsa garbi ta gozo.

Aire guztiek ez dute atabal-jotze berbera izaten eta ba-dira deus ere jotzea bear ez dutenak, ari zitzaion Balentin Poliri erakusletzat jarrita.

Polik atsegin zuan atabala, orobat buruz beera ibilli-bearra, baita ere Benturaren laguntza ordurarte par aundiak egiña ez ba-zan ere. Naia-go zuan txikien aundia izatea, ez aundien txikia.

Baño ala uste ba-zuan ere, kopeteko lotallua ezta gogoratu, nagusiaren erritak entzun bear izan zituan atabala ixilduta.

Ikastea ondo zio, baño nik erakutsiko diat iri bear ez dan tokian sartzen. Nork esan zikan apaizari atsegin emateagatik kantari astea? Ta txerpolarari moskorrik ikusi al dek iñoiz? Erakutsiko diat nik iri neurritz edatea ezik ire buruz aritzea. Emen nik agindutako besterik ez da egiten! Ta iñoiz bear ez danarekin asten ba-aiz, ez zaik orren errex sendatuko nik emandako ostikoa. Andreak: Ta oraindik opiziyua ez dakielarik. Emen ik asmatutako opiziyorik ez diagu bear. Andreak: Ikasi bitartean mantentzen ari gatzai-kiolarik. Uste al dek edozein etorri ditekela nere tegira? Ikusten dek nola jaten dan emen. Andreak: Aben tripak betetzen ez degu lan txarra. Begirok, bada, bestela aguro joango aiz etorritako bidetik.

Ango egonaldia eginda gero, gure txerpolariak Narbarteko bidean abiatu ziran urrengo egunean. Nagusiaren erritak ez zioten ezertan txartu Poliri bere olde ona. Ibillian-ibillian goizeko amarrak aldean eldu ziran errian. joan zan nagu-

sia, oi bezela, bere zeregiñetara; baño oso gogaituta biurtu. Ez omen zieten uzten goizean aritzea, arratsaldean bakarrik, eta ez enparantzian, pelota-tokian baizik, bide zabaletik ikusten zan pelota-toki artan; ez txarra. Orrez gañera ez zitezkeala musika jotzen errian ibilli.

Artaz geroz egon egin bear arratsalde arte. Ta arratsaldean pelota-tokian entzun zan lenengo musika-otsa, oso gogoz ari ez ba-ziran ere.

Asi ziran, bada, gauzak gertuta, beren lanean. Jendea poliki bildu zan. Buruz beera ta gora ta aidean ibiltzeak, ederki. Geiago ibilli balira ere ez zan jendea aspertuko. Ordurarte ederki zijoan jaia. Baita geroago parragarriren bat egin zutenean. Baño Bentura iñork ulertzen ez zituan gauzak esaten asi zanean, ain benetan ere, narbartetarrak adarra jotzen asi zitzaizkion. Gero-ta iseka ta par-algara aundiagoak egiten zioten. Uju batetik eta iji bestetik. Norbaitek zer-bait esan eta guztiak parrez. Bentura bildurtzen asi zan. Nagusia oso kezkatuta. Alakobatean botatzen diote Benturari merenge dalako bat egin begian bete-betean jo. Jendea asi zan parrez lertzeko zorian, Bentura negarrez, begi

bakarrarekin, noski, ta nagusia irakiten. Poli, berriz, ezin egonik, iñork ikusteko bildurrez.

Joan zan nagusia jendeagana. Bentura ta Poli alkarrekin atze-aldera. Asi zitzaion Poli parrezka jateko pastel ura. Egia esan, ezertxo galdu gabe oso-osorik zeukan arpegian. Benturak ezetz, erdi negarrez. Polik jateko. Ezetz. Non asten zaion benetako itxuran:.

Au dek gure etxean izaten zan bezelako pastel ederra.

Bai? besteak begi bakarra borobilduta.

Bai.

Ta zuri artatik beatz-muturrarekin pixka bat abora ekarrita parrez asi ziran biak-ala-biak.

Artean kanpoan sekulako iskanbilla sortu zan. Nagusia len ez osopozik eta joan zan amorratuta jende-tartera ta jo zuan mutil bat berak botatakoa zalakoan. Min aundia ez egiñagatik ura ere negarrez asi zan, batez ere okerreko itxura eman eta aitzakirik ez izanda jo zualako. Asi zitzaizkion orduan gizonak kontra. Ta nagusia sendoa zalarik gaizki ibilliko zan erritarrekin bero-bero zeudenez geroz. Balentin ere joan zan

bere alde. Emaztea orobat alderatu zitzaion arpegia emanik eta ez makalena. Izketa bizian zeudela, asmoak gogorragoak, erri-zaia azaldu zan aien tartera. Ta ura ere suminduta, zijoazela lenbailen erri artatik, esan zion nagusiari.

Joan bearuko. Erri-zaiari eskerrak ez zan gogorrorik gertatu. Ta oraindik ere aren bearra bazan. Erriko jendeak ez zuan nai toki artatik aldegin. Larri baño larri asi ziran txerpolariak beren tramankuluak biltzen. Eraman zituzten gurdira. Sartu ziran barrenean, Bentura begia gorri ta mingaña zuri. Ta erri-zaia atzetik abiatu ziran kanpora jendea ojuka.

Bein erri-kanpoan errizaia atzera asi zanean, andik pixka batera asi ziran bere aldiko erritarrak arrika gurdiari lurra arriz garbitzen. Ikaragarriko zaparrada bota zioten. Gurdiaren gañera ale ederrak erori. Ta gurdia ezik mando gizajoa makiña batek jotzen zuten. Ta barrengo zigorraz gañera arriek bear baño geiago zirikatuta, korri egiten zuan mandoak egiñalean, iñoiz gelditu bear ez balu bezela.

ETXALAR-KO BIDEAN

Azkeneko ibilkuntza txarra izan zan. Lan eginda gero ez zuten dirurik bildu ta eskerrak bildutakoak ez ziela miñik eman, mandoari ez beste. Mando gizajoari zenbait arriek kosk egin zioten berak janari urriari egin lezaiokean baño obeto. Orrelako zauriak, ordea, ez dute aunditasun ortako abereak gaizkitzen, itsusitzen baizik, ta ura jende zakar xamarra zan gauzak itsusi ala ederraren aldetik erabakitzeke. Gurdiak berak urratu batzuk ba-zituan, baño gurdia gogorra izaki ta nonbaitsu josi-bearra besterik ez, gogoa izatean. Ori ez da okerrena, andreak zion, lanean alperrik aritzea. Aituko omen zitzaizkan lengo irabaziak. A zer makurra! Ezin ba aztu.

Nagusia, ordea, lengoak aztuta, pozik zegoan Poliren aurrerapenari begira. Egun aietan maiz saiatzen ziran Polirekin ta oso txerpolari trebea egiñik zegoan. Jarri zion gomazko zintzilikallua gerrian arrisku-saltua ikasteko. Arrisku-saltua izaten da aidean bira osoa egin ta zutik erortzea ezeri ikutu gabe.

Gerrikoarekiin, noski, zintzilik zegoala-ta, uts edo gaizki egiten ba-zuan ez zan lurreraño erortzen. Goiko bi muturrak arbol egoki baten adarrari lotuta ere ibilli ziran. Ta uste baño askoz lenago bota bear izan zuan kalte besterik egiten ez zion zintzilikallua. Arrisku-saltua, beraz, ondotoxo ikasita zegoan. Baita ere atzekaldera eskuen gañean bira ematen. Baño geien arritzen zuana zan aidean joateko tramankulu arekin. Len Balentin izaten zan saltalaria; baño andik aurrera, Poli ariñagoa zala-ta, Polik egin bear. Nagusia eskallera batean erdi-alderaño igota mutur batera salto eginda bestea altxatzean, arin joatzen zan aidean mutilla bira osoa eman ez zutik erori baño lenago. Ta bere buruarekin onetan ari zala, Poli gero ta gorago bidaliko zuala-ta, lurrean bigungarriren bat jartzeko asmotan zebillen. Denboraz bi bira osoak egingo ditu saltu batean, zion berekiko. Lagungoak gero ta lan ohea. Ez zuten kalterik izan Poliren etorrerakin.

Benturari berriz lana gutxitu zitzaion. Ez zuten asmorik jendearen aurrean gauzak esaten jartzea. Orren truke, zeregiña ematearren, len

mandazalea ba-zan orain edozertara bidaltzen zuten.

Legasa-erria aurrean zegoala, Narbartekoa gogoan artuta, goizean emen lan egitea erabaki zuan nagusiak eta arratsaldean urrengo errian. Orrez gañera, Etxalar urrutitxo ta bidea laburtu. Legasa ez zitzaion iruditu erri aundia.

Aritu ziran, bada, Legasan goizean; baño ez zan ikusle asko bildu. Dirua ere eskas artu zuten.

Arratsaldean Doneztebe begitaratu zitzaie-nean, oso erri ederra iruditu nagusiari. Bai, Donestebe erri polita da, an Elgorriaga ta Donamaria ibaiak alkartzen diraneko artan. Errirako bidea zubian barrena dijoa, erriari bira eman eta ostera zubi beretik ateratzen da. Intzakardi-eguraztoki ederrean egin zuten ariketa. Musika joaz erritar eta udarazale asko ekarri zituzten. Poliri, ordea, arako arrantzaleari begia jarrita zegoan, presa-ondoan kanabelarekin amoarraiak nola arrapatzen zituan ikusten. Arrantzarako gogoak artuta zegoan. Lanean aritu bear, ordea, ta lan au ere gogozkoa zuala-ta, azkeneko egunetan ikasitakoak ederki erakutsi zituan. Jai polita

Intzakardin. Poli asi zan berarentzat bakarrik jotako txaloak jasotzen.

Baño urrengo egunean Etxalar-en egon nai ta Donestebeko jende txukuna utzita bideratu ziran illunabarra asten zan garaian. Ta zerbait ibilli zirala gauak Sunbillako aurrean arrapatu. An gelditzea erabaki. Apaldu zuten ta lotarako asi, baño bero aundia zala-ta, Balentinek eta Polik naiago izan zuten kanpoan lo egin. Ta mendian sartu ta an aldean arbolpeko toki egokia billatuta, antxen etzan. Burua lurrean, zero izarratua begien aurrean. Arbolen ostoak bel-beltzak ageri; ordea, goian, izar dizdizaleak keñuka. Alako argitasun urdiñ-antxakoa zero-zolan. Aize ariña ba-zebillen ostoak jostatzen. Ixiltasuna. Bi lagunek alkarren arnasa nabari. Belar-txima legorrak ots ikutzean. Bero zegoan. Langilleak atsedean artzen. Gaztelu zaarreko lo-zulo maitea gogoratu Poliri. Arratsaldeko arrantzalea, mutil donostiarrari bere erria gogoratu. Begiak malkoz aunditzen asi zitzaizkion.

Goizeko zortziak dira, irakurlea. Au egualdi ederra! Erri onetan ez dute txerpolariek lanean aritu bear ta aiek ikusten geiegi zaletu ez ba-

zera, begiraiozu ezkerreko Sunbillari. Or, presaren ondoan dakuskizun zer ori, izokiak urean gora igotzeko malladia da, lendik ez bazeneki. Ikusten, zubi ederra. Toki au berdiña da, erria toki atsegiñean jaiota dago, mendiz inguratuta. Ez dio etxerik iges egingo; orra eliza nagusi. Orra bizitza ta eriotza elizaren ondoan: pelota-tokia ta illeria bata bestearen urre.

Goazen orain txerpolariekin batean. Or beean dakuskizun ibai orrek oso urrutiraño laguntzen dio gure bideari. Bideak alde batera egiten badu, ibaiak ere bai; ibaia okertzen bada, orduan bideak jarrai. Mendi-tarteko alkar-laguntza dabilkite. Ibaia polita dago alako egunez. Ura gutxitu zaio. Bestetan ur-azpian egon oi diran ugarriak, orain zuri-zuri egiñik daude eguzkitan. Ur berdea geldik dago ta animarik ba-leuka ere ikusi lizaioketen, ain argi ta garbia dago. Putzu aundia dagoan tokian, berdeago ura. Arri borobillen tartetik, arbazta legorrak tximaz beteak.

Sunbillatik urrengo erriraño alde artan erritik errira litekean biderik luzeena da. Mandoa gelditu bedi pixka batean. Orra Poli larrubizirik alako

putzu ederrean murgiltzen, ain ur gozoa ere!
Bentura parrez dagokio.

Goazen aurrera: Igantziko Bentak. Lesakako
zubia baño lentxeago artu bear omen da Etxalar-
ko bidea, eskubitara.

Emendik bide luzea ta aldapatsua omen da. Alan
esan diote Poliri.

Eskubiko bidea artu ta gora aldera asi zira-
nean eguardia zan.

USTEGABEKO OLLARRA

Dagonillak amabost. Etxalar-aurreko zubian barrena zetozenean gurdi-gaña kiskaltzen. Uste baño beranduxeago iritxi. Mando gizajoa neka-neka zetorren euliak etsai. Barrengoek ere beroa ta nekea obe. Eguzkiak zapaldu bear.

Etxe-tartean sartu ziranean, itzala gozoa, izugarrizko neska-mutil pillak inguratu zion gurdia-ri. Oriek izaten dituzu bazkalondoko lenengo jai-zaleak. Baño ordu artan jendea poliki asia zan eta umez gañera aundiak ere azaldu ziran txerpolarien gurdia ikustera.

Aiuntamentuko beean gelditu zan gurdia. Igo zan nagusia erri-zaiarekin. Egon artan jendea ugaritu ta bil-bil egin zitzaion gurdia-ri. Mandoaldek Balentin eta etxekoandrea ikusten zuten eta atze-aldek, Poli ta Bentura. Ta mutil potolari begiratuta neska-mutillak parrez asten ziran. Aurreko pelota-plazako pelotaren ota entzuten zan tarteka orma gogorra kank jotzen zuanean.

Kanpokoak barrengoeri begira, barrengoak kanpokoeri.

Jetxi zan nagusia ta arre mando abiatu ziran erri-gibelera, inguruko baztar batera; etxe-tartean ez zeukaten ba egoterik.

Tokiratu ziran. Atera zituzten tresna ta tramankuluak eta pelota-tokian plaza eginda, jokatzea galazita, jarri zuten tegia. Ez azkarregi ibillita, nekatu xamarrak bai-zeuden.

Aurrez-aurre, karabineroen etxea. Tarteka aga luze batzuk bandera muturrean. Erdian, musika-tokia, egun aietarako neguko txokotik ateratako olaz egiña. Aiuntamentuan bandera aundia ta beeko ostatu ta ardotegian, berriz, jende asko.

Asi ziran txerpolariak musika jotzen. Egia da erriko musikaren aldean zarpalla zala musika ura; baño errietako jaietan musika geiegiak ez du iñor gaizkitzen. Ta gure musikariak bertan jaioak balira bezin lasai zebiltzan kaleetan. Errizaia aien aurretik txibiriskoak bota ta bota. Erria pil-pil kanpotarrez. An zijoan pamili guztia: Bentura potoloa, Poli lerdena, Balentin ixilla, nagusi kopetilluna ta andre txima-jario. Ala ere, ez lioteke par aundirik egingo andre beltzari, zanpa-jotzekoa eskuan zeukan bitartean beintzat.

Plazaratu ziran. Musika ixildu zanean gauza ikusgarria egiteko asmoak artuta zegoan nagusia. Nolanai bostak izango ziran. Plaza ezin geiagoan jendez betea. Asi zan bera aurreneko barran ibiltzen, len dakigun bezela; baño oso ondo ta txaloak jotzen zizkiotenean, eskar-bidez, berriro egiten zuan lengo saioa.

Eta alaxe erakusteko guztiak erakutsi ta nekatu zan arte. Jendea ixilik eta atzenean txalo ederrak.

Asi ziran gero bere aldiko Baletin eta Poli alde banatike ta bat aruntz bezela, bestea onuntz. Antxen egin zituzten aurreneko errota, gero eskuen gañean ibilli; baño astiro, ondo ikusteko moduan. Urrena Balentin eta Poli alkartuta sekulako ariketak egin zituzten: artzen zizkion oñak eskuetan Baletinek eta aidean botatzen zuan Poli, berak ere lagunduta. Eta Poli atzekaldera bira osoa egiten zuan saltu aundia egiñaz. Eta onela Balentinengandik barraraño ta barratik Balentinenganaño.

Egin zituzten aurrerako ta atzerako jira-birak, eskuak eta oñak txandaka lurrean jarrita. Baita ere arrikos saltuak, aurreraka ta atzeraka. Ta

biak iaioak ziralarik, Poli ikusten zuten atsegin geiagoz, gaztea ta lerdena zalako ta oso garbi egiten zualako. Ondo nekatu arte euki zituan nagusiak itzaz zirikatzen. Barrengo poza zeukan.

Txolarte txiki bat izan zan. Andrea an zebillen eske jendearen tartean. Jarri zuten kulunka. Benturak ekarri zuan lurreko bigungarria ta kulunkaren aurrean zabaldu zuan. Saio batzuen ondoren bi bira osoak egin bear dituk aidean, belarriratu zion nagusiak Poliri.

Astiro ari zira. Ara berriro asi. Saltatu zan nagusia ta punp gure mutilla aidean. Bai jator erori zutik. Txaloak bitartean ea gorago esaten zion nagusiak.

Urrena gorago. Ederki. Ondoren Balentinen bizkarraren gañean zutik. Ederki.

Orain, orain. Kulunka tinkatu zuten; bigungarria luzatu. Eskallera ere gertu. Plazako ixiltasunean igo ziran nagusia ta Balentin. Alkarganatu ziran. Jarri zan Poli kulunkaren muturrean. Gertu zeuden. Pixka batean egon ziran. Ta ea, motel, egiten dute salto biak batean kulunkaren beste muturrera ta ujujui etxekeok berek karraxika egiñaz, an zebillen aidean Poli biraka bi osoak

eginda lurrera txut erori zan arteraño. Ikara pasata, gortzeko añaño esku-zarta beroa izan zan. Poli irria ezpañetan guztiak agurtzen.

Txerpolariek ez zuten iñoiz orren lan ikusgarria egin. Pozik zegoen nagusia; baita Poli ta beste guztiak. Aieri eskerrak, urte artako Etxalarko jaiak bestetan baño ederragoak izan ziran. Dirua parra-parra bildu zuten. Orrez gañera, andreak bidalita, lanik ez zuala egiten erritan emanda, Bentura gizajoak arratsean arrapatutako sagarrez kolkoa bete ekarri zuan.

Bigarren egunez saiatu ziran. Lengo ariketa berberak ez egitearren, aldatu zuten eginbidea. Ta indarrezko ariketa batzuk kendu ta parragarritzkoak egin aien orde. Ta len ikusitako batzuk egin ondoren, tentelkeriak asi. Ta eztiarena egin zuten.

Eztiarena egiten zuten nagusia ta Balentinen artean, biak parragarri jantzita. Jartzen ziran biak plazaren erdian, bat exerita. Zutik zegoana erlea omen zan ta arek joan bear zuan ezti-billa, bestea utzita. Ni natorrenean esaidak: ekatzak ezti.

Ta bein eta berriz gauza bera galdetu ta eran-tzunda, asten zan erlea plazako bira guztian bi besoekin ega-itxuran. Baño bestearen atzetik pasatzean artzen zuan aboa bete ur. Ta berriz egari emanda ba-zijoan, azkenez, bestearengana. Biak aurrez-aurre jartzen ziranean, exerita zegoanak esaten zion erleari: ekatzak ezta. Ta eskatu bezin aguro, arpegira botatzen zion aboa beteko ur guztia.

Urrena erlea erlenagi ta erlenagia erle, alegia lengo egalaria exerita ta exeritakoa egalari. Asten zan pozik erle berria lengoak ordaintzeko ustean, baño erleak bizkarra jarrita aboa urez betetzen zuanean, exerita gelditutakoak beste ainbesteko ura artu. Alkarren aurrean jarri ziran: nnn! batek, nnn! besteak. Ta naiko nnn! ibillita, batak besteari ezin aditurik, erleak besteari ezta eskatzeko esan naiez aboa ustu zuanean, erlenagiak arpegira bota zion ura len bustitako bera-ri.

Orra, bada, txerpolarien jaiari itxura eman. Eztiarena par asko egin+erazten zuan. Bigarren txanda onetan ere dirua poliki artu zuten, jendea zillarrean zegoan. Ta gero, jakiña, an ibiltzen

zitzaizun andrea zenbait gauza saltzen. Ta Etxalarko jaiak ezin obeak izango ziran txerpolarientzat, baldin emakume gaiztoak egiteko txarren bat egin ez balu.

Benturaren nai ta nai-ezko lanik-eza ezin eramank, lapurretara beartu zuan. Alako tokiko ollotegitik, berak ongi ikusia, ollo bat bederik ekarri zezala. Nola joan, non sartu, nola ekarri, esan zizkion. Bentura negarrez. Orduan-eta andre gaiztoa amorratuago.

Gaba zan eta gurekiko illunpeak izu geiago ematen zion beste edozerk baño. Olloari eltzea ere ez dakigu ausartuko ote litzaken. Mutil gizajoari atximurrak egiten zizkion: alperra, ez gero gabe onera etorri; ekartzen ez ba-dek ik daukak gorria. Grin txarra artu ziona.

Poliri min ematen zion oriek ikusteak eta, naiz bein-edo-bein par-egiteko gogoia etorri, asarretuko zitzaion andreari. Ta bai ez asarretzeagatik ala lapurretara joateko gogoagatik, berak lagunduko ziola Benturari. Ta andrea madarikatzen, eldu zioten biak alkarrekin eta zoazte abiatu ziran esandako tokitik.

Bide txigor batera aldatu ziran eta andik laister Benturak ikusi zuan ollotegia illunpean, len sagarrak ostu zituaneko tokiti ez urruti. Pixkana-ka alderatu ziran. Ollotegi aundia zan. Atea billatu zuten. Atzera begiratu ta, sartu ziran, Poli aurretik.

Gaba oso illuna zan; ia ez zuten alkar ikusten. Asi zan Poli olloen zultura, baño ixillik ibilliagatik ollo batzuk arrotu ziran eta pixka bateko ollotegi guztia kol-kol eta ega-zalapartan. Asi zan Poli korrika aien atzetik eta orduan berriz larrutu bear ba-zituzten baño zarata geiago ateratzen. Ez zitzaion lan erreza Poliri ollorik arrapatzea, egiñalean iges egin zutelarik nekez ikusten illun artan. Ango korrikaekin izugarrizko zalaparta sortu zan.

Bentura ere batera ta bestera zebillela, errepatu gabe artzen dio anka oñaren azpian ollarri ta arek eskura tira zion kolpiaz asten da karra-xika negarrez. Baserriko zakurra, lotuta zegoana, asten da bere aldiko zaunka esnatuta. Polik igesari eman zion tximistaka. Bentura giza-joa, ordea, atea ezin billaturik gero ta marru aundiagoak ateratzen zituan. Non agertzen dan

baserritarra makilla eskuan, Poli igeska ikusia. Ta ebain-ebain egingo zuan Bentura gizajoa aren ikaraz biotz-ikutua izan ez ba-zuan. Ala ere besotik elduta atera zuan ollotegitik eta ederki astinduta bidali zuan jo gabe, berriz azaltzen ba-aiz esanez.

Eskuan odola ikusita eraso zion berriz negarrari Benturak eta Poliren korrikarekin eta baserriko zakurraren zaunkarekin, bideko zakur guztiak asi ziran bere aldiko izugarrizko zaratan.

Urrengo goizean, oso goiz, karabineroa etorri zan txerpolariengana ta alde egiteko erri artatik lenbaitlen guztiak kartzelan sartzea nai ez bazuten.

Abiatu ziran; zubia pasa zuten. Benturak gogoz zekusan erria atzean; eskuko odolak baño izu geiago ematen zion erri artan egoteak. Onela egin bear izan zuan lana amairu urteko mutillak.

Nagusia gogor aritu zitzaien erritan arratsean gertatutakoaz. Batez ere bere andreari aritu zitzaion, baita Bentura tontuari ta Poliri ere ez zion barkatu, orrenbeste korri eginda, esku-utsik etorri zalako.

Mendi-gañetan odeiak bulunbaka zebiltzan egoaize gozoak emeki bultzatuta. Azkenez guztiak pillan artu ta eraman zituan. Ortzia garbitu ta eguzki ederra azaldu zan.

AMOARRIAK ETA SUKAR USTELA

Balentinek ala zion:.

Gañeko larrua makillakin jotzen danean, azpikoa dardar jartzen du bien tarteko aizea dala-ta, ta erditik dijoazen listari abek ikututa, len alako bi egiten du dardar ta gañekoari eragin egiten dio. Listari abek ez balira soñu gutxi aterako luke atabalak. Nik erakutsiko diat iri zeri esaten zaion ta, pla, tra, rra-rra, atabala jotzen danean. Ik beste zerbait jotzen ere ikasi bear ukek.

Nagusiak bere aldikoz:.

Ezerk ez nau geiago amorratzen emen edozeinek nai duana egiteak baño, ni iñor ez banintz bezela; baño aitu zaizute nai duanak nai duana egite ori.

Andreak esan zuan:.

Nola biziko ziñateke nik bear bezela gobernatu ez ba-zinduzketet? Zer jango zenuteke? Berriz ere saiatu bearko det jana ekartzen goseak ilko ez bazaituzte.

Benturak:.

Eskuko miñak oraindik ere oñazea egiten dit.
Poli ixillik zegoan Balentineri adi-adi.

Ta bat-batean gogoratu ainbeste orduan jan gabe zegoala mandoa. Baño aurki Lesakan ziran eta gelditzean emango zioten, lertuta gelditzen ez ba-zan beintzat.

Errian sartu ziran. Igandea zan. Ta emen ere oi bezelako saioak egin zituzten. Txerpolarien lana obetu zan ta iñoren aurrean aritzeko ederki gaituta zeuden, Poliri eskerrak. Euskalerrian asi ziranetik zer-jana errez bereganatzen zuten andrearen marmarizaren gora-beeragatik. Edo guk uste, geiago izan eta purrustaka gogorrago, alegia pozari itxura kentzeagatik aritzen zala erritalari.

Ostera asi zan mandoa etxea karraio: txerpolariek lan egiten zutenean, mandoa geldik; aiek geratzen ziranean, mandoa lanean. Ala, iritxi ziran Lesakako zubira eta bertan bide zabala.

Poli atze-aldean zetorren exerita zankoak zintzilik. Non salto egin ta ba-dijoa ibaira. Arrantzalea prantzesa zan, lo-kuluxka egiten. Artzen dio

Polik bañabela ta saski txikia eta ba-dijoa korrika gurdira.

Nagusiak oartuta ala dio asarre bizian:.

Zer dakark or?

Arrantzan egiteko.

Ba-al dakik arrantzan?

Baai.

Andrea tartetu zan:.

Lagaiozu, ez degu kalterik izango.

Donesteben ikusiz geroztik areri egin zitzaion gogoarekin.

Ta ala gertatu. Egun aietan Bera-aldean ibilli ziran, erri onetan ere erakustaldi bat egin bai zuten. Ta erriaren izena entzun ez eta Pinisterre gizajoaz ezta batere gogoratu gure arrantzalea.

Egun aietan amoarraitan erruz atera zuan Polik eta ez zan nagusia gutxiena janda zegoana. Bentura arriturik zeukan eta Balentin bera ere, zeñen ondo arrapatu ta amua nola kentzen zion arraiari. Ta arraitan ia etxeko guztiak aspertu aña ateratzen zuala, beñere ez geiegi etxekoan-drearentzat.

Endarlatzko ondoan bein ari zala, ikaragarrizko pilla atera zuan Polik. Baño batean karabine-

roak kañabela ederregia oartu Poliren eskuetan. Arrantzarako paperak? Polik kañabela billatu zuala. Kendu ta pakean.

Gurdian zirala, ordea, amorrarai prexkua ain ederki jandako nagusia bat-batean sumindu zitzaion Poliri: oneraño zegoala, aren nai duana egitearekin eta istillu berririk ekartzen ba-zion etxetik kanpora bidaliko zuala.

Abiatu ziran Endarlatzako zubian barrena. Gipuzkoan sartzerakoan mikeletea ikusi zuten izkillua bizkarrean.

Aren gorri-urdiñak ikusgarri. Mikeletea gizaseme sendokote ta indartsua zan; txerpolarien gurdia errex irauli zezakean berak bakarrik. Ez ote zegoan parragarri ainindar aundiko gizona izkilli bearrez? Alegia, bien artean indar geiegi ez ote zeukaten. Edo gizona sobra, ala izkillua geiegi. Sabela beteta euki ta ogi aundia besoaren azpian, esate batera.

Mikeleteak ezin ezere esan.

Irungo bidea zeramaten. Alde batera ta bestera mendixka tenteak altxa ta bee-beerañoko irrikituak erakusten zituzten. Noizbait azkeneko mendi koskorra nekez alderatu ta Beobiko etxe-

pilla agertu zan. Pixka bat aurrerago, ibaiko ur zabalaren gañean, Ondarribi-erria urrutira ikusi zuten.

Irunen sartzerakoan, ordea, uste gabea gertatu. Errizaia azaldu zitzaien karraxika eskumakilla altxata gelditzeko ta gelditzeko. Zer gertatu? Sasoi artan Gipuzkoako alde onetan sukar ustela tifus) askotxo zegoan. Ta itxura zikiñeko jende ura ikustean, gaitzaren kutsua zekarkitelakoan, ez nai errian sartzen utzi. Jeisteko ta guztiak berarekin joateko. Barrengoak geldik. Tira zion errizaiak mandoari ta an eraman zuan gurdia ta gurdiko jendea baztar izkutu batera.

Joan zan errizaia mikeletearengana ta andik pixka bateko mikelete bikoarekin azaldu zan.

qq.

Polik tiputs entzun zuanean, ala dio parrez: Tiputs ez dakit; baño triputs, errexago.

la jo zuan errizaiak makillarekin. Nagusiaren begiratua.

Ta errian sartu ezin zitezkeala ta aiuntamentuko bidean asi ziran gure bost lagunak eta errizaia eta mikeleteak, gurdia an bakarrik utzita.

Jendea asi zan aien atzetik. Leio guztiak emakumez bete ziran. Urrengo izkiñan erriko atabalaria ari zan: Larretxipiko karrikan sagardua asidala, ogeitabost xentimuan litrua. Ta litrua esatean izugarrizko ojua egiten zuan. Aren inguruko neska-mutillak ere lengoekin bateratu ziran ta jende mordo aundi xamarra zijoan txerpolariekin kaleetan.

Nolabait tiputs itza zabaldu zan erritarren artean, ta ojuka asi ziran aiek andik bidaltzeko.

Alkateak zer zan jakitean, ez sartzeko txerpolaria etxe artan, zijoazela sendalariarengana. Baño erritarrek gero ta oju aundiagoak, gero ta bildur geiago ematen. Ta oker gogorren bat gerta ez zedin, abiatu ziran gurdia zegoaneko tokira.

Larri ibilli ziran bidean eta gurdiarekin larriago; bada ara orduko lastoa sutan asi zitzaizkion botatzen gurdiari erretzeko asmotan.

Ala ere, ala ere, garaiz iritxi! Baño ajol aundi-ko erretzea egin ez bazuten, aidean joan bear erritik kanpora bizirik aterako baziran.

Mikeleteak lagunduta Oyartzungo bidea artu zuten. Mando gizajoak ezin karriatu gurdia alako kale maldatsuan.

Erritik atera ziranean txerpolariak pixka bat lasaitzena si ziran, beren buruak bakarrik ikusita. Ibilli ziran bidea aurrera, ibilli t'ibilli. Itzik esan gabe zijoazen. malda beera batean, bide zabalak bira egin eta azaltzen da bat-batean Oyartzun.

Erria bideko beetik asi ta plazaraño igotzen da. Elizaren burua etxeen gañetik ageri. Plazatik beera asten da bidea Astigarragako aldera.

EGITEKO EDERRA!

Ala ibilli ziran erriz-erri: Oyartzun, Astigarra-ga, Ernani, Urnieta, Andoain, Billabona, Tolosa, Berastegi, Leitza, Lekunberri, gurdia bideari lotzen zitzaion eta, zakur gosetuaren antzera, anima apartatuta, non jan-usaia nabaritzen zuten, bertan gelditu.

Amaika istillu ta naigabe ibilli zituzten! Ezin esan igeska ote zijoazen ala ezin arrapatuaren atzetik ote zebiltzan. Txerpolariak, mando ta guzti, zori berari lotu zitzaizkion, on ala gaizto. Ba-ziruditen ibillian jaioak zirala.

Nai bezelako egun onak ikusi zituzten, nai baño askoz txarragoak ere bai; gero ta txarragoak zenbat eta aurrerago. Zer-jana izaten zuten batzutan, bestetan edana bakarrik, goi-goitik eroria. Ai, onelako ta alako tokitan irabazitako txanpon ederrak! Beroa, aizea, euria, elurra, danak artu bear.

Tolosan ia garbitu zan Poli. Oso tankera txarrean erorita denbora luzean egon zan korderik gabe.

Gaxotegira eramán zuten, gaxotegi ederra alá ere. Ta gogo onez ba-zan alá gogo txarrez ba-zan, an egon bear zai txerpolarí jendea, ura gabe ez bai zan ikuskizunik.

Poli nai bezin ondo sendatu zan.

Berastegin erriko idazkaria sekretaiua) ibilli zuten musikaren aurretik. Leitzan, euri-jasa izugarria ari zuala-ta, eskolan egin zuten txerpolariek oi bezelako ariketa, neska-mutillen aulkiak aterata.

Onela ibilli zituzten makiña bat erri Gipuzkoa ta Naparroakoak. Ultzama-aldera jo zuten. An, egun batez, Bentura gizajoak, egun itun batez, malkoak begietan, aiek ez zirala bere gurasoak, aitortu zion Poliri. Alegia noizbait ama maitea izana gogoratzen zala. Besterik ez zekian. A zer bi.

Baño andik aurrera Polik iñoiz ez bezelako gogoetak izaten zituan. Bizi-modu arekin asperasper eginda zegoan. Txerpolaritarako ariketak gogo txarrez egiten zituan. Bere larruan ez zeukan tokirik. Bentura erruki zuan. Lanean aritzeko bear aña indarra izatean, aldegintzak emendik, bein esan zion.

Balentinek asko maite zuan Poli. Kornetiña jotzen erakutsi zion. Iñork baño obeto ezagutzen zuan Poli. Ik bizibide ona izango dek, esan zion batean, eta ongi biziko aiz.

Ultzama-aldean denbora luze xamarrean ibilli ziran jo-ta-tira oi bezela. Baño Polik gero ta estuago zeukan barrena. Gaztelu zaarreko lozulo maiteak? Ez. Biotzeko leioak?

Ta orra non lurralde artan batera ta bestera ibilli zebiltzala, non jotzen duten Iruritako aterabidea. Ta orduztik bi urte bete-beteak zirala Elizondon ziran berriz erriko jaietan.

Poli erria ezagutu zuanean ez zan bere buruaren jabe. Bizibide arekin len aspertuta zegoala-ta, orain batean burura etorritako gogorapenekin oso nastu zala esan zitekean. Aspal-dian aztuta ba-zegoan ere, eta arrunt aztuta, zer gogoratua etorri zitzaion ausarki. Ta orra zotza baño zuzenagoko mutilla makurtzen asi. Ordu-rarte ez zuan iñorenganako maite-samurtasunik nabaritu. Orain gaxotu ez ote zan esatekoa zan.

Gurdiaren barrenen geldik zegoela, andreak eskuan baldea jarri ta ura ekartzeko.

Abiatu zan ain ongi ezagutzen zuan erriaren barrena bakarrik egoteko atsegiñez. An zijoan mutil gazte lerdena, baldea eskuan, arabakiz ta zarpallaz jantzia. Noizpeinka lurrera begira gelditu ta urrena dingili-dangala asten zitzaion baldea.

Baño Poli ez zijoan bakar-bakarrik. Iturriratu zanean, aren atzetik zijoana, ura gelditu ta au aurrera bidean, doi-doi bertaratu zan. Nor ote neskak polit ura? Ederki jantzia, erretena buruko illearen erdian.

Aurrez-aurre jarri zitzaiola, Polik begiratu zion, baño ez zuan ezagutu. Ordea arpegia lengo aldera biurtzen zuanean neska irriz iruditu. Zutitu ta berriz begiratu zion. Neskak oraingoan len baño irri gozoagoa.

Bat-batean Poli zuri-zuri gelditu zan. Katin! Oso ikaratu zitzaion Poli. Batetik pasteleriko alaba, bestetik neska gaztearekin aurrez-aurre. Ala izan oi gera gizonak; iñoren bildur ez zana neskak izutu.

Ixilune baten ondoren neskak itzegin bear, noski.

Zer zabilta aspaldi onetan? Etorriko al ziñake gure etxera?

Poli dar-dar, ez ote? Joan-naia ta lotsa burruka zebilkioten. Bere jantziari ta neskarenari errepatauta atzerakoa egin zioten. Neskak oartu ta arpegi gozoaz mugitu zuan mutilla.

Beatzak igurtzi zituan Polik jantzi zarrean eta oso lotsatuta arekin asi zan. Itsasoan ibillitako ekaitz beltzak ez zuan iñoiz orrenbesteraño baldartu. Nola mutilla ala neskatxa, baldeaz aztu ta an gelditu zan iturriko ura gañezka zijoakiola.

Etxean sartu ziranean Gexina pozez zoraturik zebillen, ama malkoak begietan, aita, aitak bere bi besoak jarri zizkan Poliri bizkarraren gañean.

Katinen egiteko ederra!

ITSASOKO KONTUAK

«ETA ONDO LO'IN»

Poli etxeko langille gazte bizkor ta txukuna zan. Orduari begiratu gabe ekiten zion lanari ta, ain denbora luzean zegoanez, nagusiak aña bazekian lanean. Etxeko oitura guztiak iñork bezin obeto zekizkian. Egia ikasi-errexak zirala ango gauzak: etxekoek danetara jartzen zuten bertako semea balitz bezela. Ta ez zan arritzekoa bein edo bein mezetatik ateratzean topo egiten bazuan, Poli ta bi neskak alkarrekin etortzea. Orrengatik, beratzaz itzegiten zutenean ustegabeen bein baño geiagotan pasteleriko semea dietzen zioten. Poli mutil apaña ibiltzen zan.

Polik lagun askoen ezaguera egin zuan errian, baño ez zan lagun tartean ibiltzen zalea. Guztiok izaten ditugu egun batzuk besteak baño alaiagoak eta baita jostatzeko gogoa bakoitzak geren modura. Ez da arritzekoa, bada, alako sasoieko gaztea batzuetan jostatzeko gogoa izatea. Alakotan Gexina izaten zuan jostagarri! Arekin egiten zituan parrak!

Katinekin ordea, adiskide mamiak izanagatik, gero ta geiago, tarte aundia uzten zuan. Ba-dakizute? urteak geiago. Askotan alkarri zerbait emateko, dar-dar egiten zien eskuek. Katin arpegi zuria zan; Gexina, beltzarana.

Etxeko semea bezela bizi zala esandegu ta ala zan. Etxekoekin batean exeritzen zan otorduetan, mai berean. Ta len itz gutxiko mutilla bazan, denboraz gogoia etorri zitzaion, tarteka bazan ere. Ta ala, batez ere apalondotan, zeresana izaten zuan. Ta berari gogoz entzun ere bai, txikiek eta aundiek. Itsaso-kontuz aritzen zanean, batez ere, guztiak adi-adi. Ez zeukan txerpolariarentzako gogorik; ez dakigu baldearen barrenean osorik gelditu ote zitzaion.

Maiz eskatzen zioten itsasoko gauzak esatea, Gexinak geiena. Ta orain ere an ari zan esaten bein txikitan arrantza-ontzian ikusia. Arraitzar bat, ikaragarrizko aundia, sarean nola arrapatu zuten. Gora igota su-egilleak burni gorria sartu omen zion begietatik. Guztiak ikaratu ziran. Bai, uretara erortzen ba-zerate ikusiko dezute zer diran oriek.

Ta zer geiago? Gexinak.

Uretara bota zutenean, ikusten ez zuala-ta, ontzia jotzen zuan buruarekin. Denbora guztian ez ordea, ur-azpiko lagunek odol-kutsua nabaritu orduko, pusketan jan zuten.

Ondo egia da arrai aundiak txikia jaten duala; askotan ikusten da arrai aundi baten barrenean arrai txikia ta txikiaren barrenean beste txikiagoa.

Itsas-aingirak izugarrizko bizitasuna dauka. Erditik idiki, barrena kendu biotza ta guzti ta ala ere bizirik dago.

Urrengo batean ala ari zitzaizun:.

Bein gauza ikusgarria ikusi genuan; itsasoko ura argitan gabean. Urak berak argia. Bai omen dira, tira, esan dezagun mendian ipurtargiak izaten diran bezela, bai omen dira itsasoan alako mamorro tiki-tikiak argi egiten dutenak. Ba oriek dituzute pilla aundietan ura argitan jartzen dutenak. Ontziak ba-dirudi aidean dijoala argiaren gañean. Ura gauza arrigarria.

Itsasoan ez da gau bat bestearen berdiña. Beste batean, Ejitoko bidean ginjoazela, itsasoko ura bare-barea, aize-arnasarik ere ez. Ura gau ederra! Zeruko izar guztien errañua ikusten zan

argi ta garbi itsasoko uretan, izarrak argitutako gau artan.

Etxeko jendea arriturik zeukan. Katin, berriz, arrituta baño geiago. Lendik iduri atsegiñeko mutilla zitzaiola-ta, orain berriz ez dakigu zerk geiago eldu zion. Polik itzegiten zuan bakoitzean adi-adi ta begira jartzen zitzaion. Eta nola gero?

Polik aieri atsegiña emateagatik gogoz aritzen zan itsasoko gauzak esaten. Emen len aipatutakoak ere esan zituan Txo deitzen zioten denborakoak, arek ikusi zituan erri ta oiturak, aiek ibilli zituzten arriskoak.

Baño emakumeeri arrisko aunditan ibillitako gizonak arrigarri ta atsegiñak zaizkie, maitegarriak ere esango nuke. Ez bai-dute atsegin gizon izuti ta koldarrik, kemeneko gizona baizik.

Ta Katineri egunean baño egunean gizaseme jatorragoa iruditzen Poli. Aitak berak gogokoa zuan mutil ura. Ene, bada.

Orain esan nai degun apalondo artan, ekaitza izugarria aipatu zuan, Pinisterre giza-gizajoa ilzanekoa.

Esan zituan xeetasun guztiak, berak ikusi bezela. Nola ta zenbat denboran egon ziran.

Aizearen txistua, itsasoaren marruak, Akulamendiren burundara. Pinisterre nola il zan. Malluketak il-kutxa egiten. Bi kandelak kutxaren bi aldeetara. Kutxa irristaka itsasora nola joan zan. Itsasoak ekarrita nola lertu zan. Berriz nola bota zuten.

Orduan, bai, orduan larria sartu zala argiaren azpiko mai artan.

Katinek galdetu zion:.

Eta zuk errezatu al zenuan?

Lenbizikoan, bai; baño bigarreanean nola ez bai zuten errezatzeko esan.

Aitaren tokian gazta-azalak txiki-txiki egindn gelditu ziran; Polirenean, ogi-apurrez betea, ta besteenean mai-zapia ta ezpain-zapiak iñoiz bezela korapillotuak eta sakabanatuak.

Aitak bere aldetik ere pixkatxo bat itzegin zuan itzaldiaren ondorengoari beltzura kentzeagatik eta ala olde onean jaiki ziran maietik oerako.

Izan ere, lotarako abiatuta, biak bakarrik arkitu ziran artan, ala esan zion Katinek Poliri emeki, oso emeki:.

Txo, ondo lo'in.

Ondo lo'in, Katin.

Irri gozoa biak, maite-begiak.

TXORIAK PI-PI

Bordari guztiak an ziran inguruko mendietatik jetxiak. Elizondoko belardian ganadu-periazan. Gizona ta aberea asko bildu zan: gizonak txamar beltz, abereak txamar gorri. Ikaragarrizko nastea zegoan baserritar ta abelgorriena. Tratalariek izketa ugaria zebilkiten; idi ta beiek berriz, tarteka, orro luzea ateratzen. Aiek bazebiltzan batetik bestera; abek geldik burniari lotuak. Abere eder baten ondoan gelditu, txapela erdi kenduta, ta, kopetari eragiñaz, era nolako tratua.

Abere-usaia aundia, gorotz-pustillak ugari, euliak erruz. Izan ere ura zan isatzen dantza bizia! Belardiko baztar batean bi gizon zeuden alkar aditu eziñik. Tratua itxi, ardandegian alkarrekin edan, ta ain ondo salduagatik ez zion ba saltzaleak amar errial eskatzen zintzarriagatik aren traturik egin ez zutelako.

Peria ikusita abiatu ziran Poli ta biak, Poli ta Katin alegia. Etxeko biamena bazuten alkarrekin ibiltzekoa.

Erri guztian ba-zekiten aien berri. Neskatxaren gurasoak, noski, lenago konturatu ziran gazteen maitasunaz aiek berak baño.

Mandi-aldera ba-zuten egon-toki ederra makiña bat bider egondakoa. Orain ere ba-zijoazen pozik alkarrekin. A zer egonaldi gozoak.

Donostiaz itzegiten dizutanean, zion katinek bidean zijoazela, ez dezu atsegin izaten nonbait, tristetu egiten zera. Baño ez noakizu geiago esatera, naiago zaitut alai eta pzodun.

Ta bat-bateko ur-putzu aundia zegoala-ta, ikaragarritzko saltua egin zuan Polik aren gañetik.

Ooo! arritu zitzaion Katin.

Mutilla sasoiez egoki ta aspaldian artaz itzik atera ez ba-zuan ere, neskaren ikara jostagarria zitzaiola-ta, urrena arrisko-saltua egin zuan ta ezin obeto egin ere. Bi oñakin zaplatekoa jo lurrean ta aidean bira osoa egin zuan burua beera ta gora zutik erortzeko.

Bildurtu zitzaion neska. Poli, parrez. katinek besotik eltzea egin zion. Biak parrez.

Ori ikara eman didazu. Zeñen ederki dakizun! Ez al dezu damurik txerpolariak utzia?

Jakin naiez beterik utzi zuan neskatxa.

Ez, ez det damurik.

Ba-zebiltzala-ta, iritxi ziran betiko tokira.
Katin korrika asi zan belarrean.

Urrena loreak biltzen. Pilla polita bildu zuanean exeri zan Poliren ondoan. Bat artu, bestea artu, au, ederrena esanaz belaunikatu zan Poliri lepoaurreko txamarreko txuloan lorea jartzeko. Usai egin zione ta ez dauka usairik esanda bertatik bertara jarri zon Poliri usai egiteko. Lorea ipiñi zion. Ta azken ikutzean ari zala Polik beste ainbestekoarekin ordaindu zion kokotzan neskatx txoragarriari.

Ta ala asi zan Poli:.

Zergatik galdetu didazu lenago ez ote nuan damurik txerpolariak utzia? Eta zu damutan al zaude iturrian nerekin topo egiña?

Eta zu?

Ez nintzan zurekin joango.

Ni ere ez nintzan zure atzetik ibilliko, orra.

Ta ori esanda neska begien pozgarri areri masallak asi zitzaizkan gorritzen.

Poliri biotz-ikutua egin zion aren lotsak.
Samurki artu zion eskua. Ez jakin nola eskerrak eman.

Ixilik zeuden.

Ba-al dakizu oso saltalari trebea zaudela?

Urrena idiki zion eskua Poliri ta asi zitzaion loreak eskuan jartzen banaka.

Zure aitak zenbat maite naun! Amak ere bai.
Baita Gexinak ere.

Eta zuk maite al gaituzu?

Nik ez det esan zuk maite nazunik. Eta, zuk ere ez.

Katin gaxoak atsekabe aundiz artu zuan esana. Min eman zion. Oso illundu zitzaion arpegia neskatx politari. Neska gaxoa.

Poliri irria damu biurtu. Asi zan okerra nola zuzendu, gaizkituari miña nola kendu.

Barkatu, Katin maitea, asmatu zuan.

Ondo ordaindua zegoan. Maite itz ura baño ez zuan sendagarri oberik. Barrengo poz aundia zeukaten. Alkarren ondoan egoteak zoriona eskubeteka zekarkien.

katinek kopeta ezarri zion Poliri besagañean. Mutillak neskaxari eskua artu ta len bereganatutako loreak asi zan eskura bakana pasatzen.

Txo, zion legunki neskax biotz-aundiak.

Tankera artan, biotza maitasunaz asetzen, gelditu ziran zenbait denboran. Ixilune artan, txorien pi-pi ta txirripititxoak iñoiz baño garbia-goak.

Polik:.

Zure aitak asko maite nau. Nik ere asko maite det bera. Onginaiez ta eskarrez beterik nagokio. Jainkoak bedeinka beza. Bera ezagutu ez banu, nor nitekean ni orain? Zu, enea, ez zinduzket maiteko. ALde txarrera jo nezakean, ain erez ere! Ona gizon egiñik andrea bearrez. Al zait etorriko aita deitzeko garaia? Bear zaitut, Katin.

Txo, ba-naukazu.

Iñoiz asmo ori artuta ba-nago ere, ez orain ainbestean. Gero-ta naiago zaitut. Zureganako maitasuna, iñoiz iñorenganako ez nabaritua, bazanik ere ez nekiala, egunean baño egunean aundiagoa egin zait. Ez dakit noiz asi zitzaidan. Ta asierarik ikusten ez diotalako, ala ez dakit zer

dalako, beti maitea izan zaitudala iruditzen zait. Ta ala ez bada ere, ba-dakit nere bizi guztian maitasun orrek ez duala amaitzerik izango. Ta au ere esan nai nizun: oraindano ezin ohea izan zaitala zurekin egotea, orain ere ala zait, baño laguna baño geiago nai zinduzket. Ordea, izugarrizko aldarteak izaten ditut gogo orreri izanbidea nola eman nere buruarekin asten naizenean, ni Jainkoak daki nondik etorria! Aitari, zure aitari, biak parrez, gure aitari?

Bai, nai ba-dezu.

Gure aitari esan-bearrak lotsa ta bildur aundia ematen dit, ni len ain ajolakabea.

Zu ez zera inoiz ajolakabea izan.

Zuk ez jakin. Ta zuen etxetik alde egin nua-nean?

Ez orrelakorik aipatu.

Tira ba, baño nik uste bera ere antzema egongo dala.

Orduan katin asi zan polliki:.

Gaurtxe esan dit amatxok ea orretzaz zerbait itzegin ote degun.

Akabo Poliren bildurrak! Neska zoragarria! Utzi ditzagun andik aurrera. Zuek asmatu eziñe-

korik ez nizuteke esango. Au ez-ezik, etxerakoa artu zutenean txoriak zijoazkiela atzetik.

Ez da zer geiago luzatu Katin ta Poliren arazo au. Irakurleak onuzkero antz emango zion bi gazte oriek alkar nola maite zuten ikustia, aien etxeko jendea nolakoa zan jakinda, ezkontza bere bidez zetorren gauza zala. Ala izan ez balitz, nik ez nioke edesti oneri asierarik ere emango, ta obe zan orren bukaera txarreko edestia iñork ez jakitea. Baño beste irabazirik ez banu ere, edesti au nik bakarrik jakiteko zoriona izan det. Eta zuk ez dakizu, irakurlea, azkenpolit au esateko gogoak nola neraman. Ta zuri lenbaitlen esateagatik eta larriarekin ategingarririk aztutzeko bildurrez, lanak ibilli ditut. Ala ere, baitin nago, ziur nago lortua. Ta zure txaloren billa ez nabillelarik, oso pozik nago bukatua; jakin ezazu, bada, lendik ez bazeneki, orko parragarrikerien irrizale lenengoa, orko zoritxarraz lenen minduna, orko zorionaz lenen atsegin duana, leen-leen oriek idatzi dituan ni nerau nozula.

Ta ezertxo ere jakin gabe zu ere egon ez zaitzen, irakurri onoko punta au, ontazekero, ta ez det uste irakurriaren damua izango dezunik.

Poli ta Katin ezkondu ziran, aitaren etxera. Iruritako apaiz donostiarrak ezkondu zituan, len udareak ostutakoa; etxeko ezagun aundia izaki, Poli ere ezagutu zuan. Etxe artan zoriona leio zabaletik sartu zan. Ordea, Poli donostiarra ta ezin etsi denbora geiagoan Donostiaz kanpora. Bere gogoaz azaldu zuan.

Ez zuan kalterik izan. Orra aitaren erabaki polita, ezkonberrieri Donostian pastelari bat jartzea. Gexina ere poztu zan, ara joateko aitzakia maiz izango zualakoan.

Ta ala, Santa Maria eliz-aurreko Kale Nagusian, kaia antxe bertan, jarri zien aitak qq izenez pastelari polit txukun bat.

Sagarrak eltzen diranean adarratik eten ta lurrera erortzen diran gisara, alatsu etorri ziran ezkonberriak Gipuzkoako erri nagusira; arbola Elizondon, lurra Donostian.

Antxen bizi izan ziran ezkonberriak kaieko ondo-ondoan.

Bein sartu zan dendan gizon zar bat, gaizki jantzia, oso eroria, pastel apurrak eske. Polik ezagutu zuan, biotz-ikara egin zitzaion, ta, malakoak begietan, bi sakelak bete-bete egin zizkan.

Juanbeltz zan.

Azkena